


Bizkaieraz Bertsotan

Xabier Amuriza



Secc.
Baskon/

U-7973

Bizkaieraz Bertsotan

Xabier Amuriza



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE VIZCAYA
LIBURUTEGIA
BIBLIOTECA

N.º Registro. 19307

Fecha: 16.12.96

Procedencia. Dep. In. L. Legal

Signatura: U-7973

C. D. U. 896.69-1.09

Autore eskubideak: **Xabier Amuriza.**

Argitalpen eskubideak: © **Bertsozale Elkartea.**

Azala: **Bittor Txakartegi.**

Argazkiak: **José María López.**

Inprimategia: **Hika-Mika Inprimategia, S.L. –Gizaburuaga–.**


L.G.: BI-1925-96.

I.S.B.N.: 84-89283-07-9.



AURKIBIDEA

| | |
|---------------------------------------------|-----|
| SARREREA | 5 |
| I. DEKLINABIDEA | 9 |
| KONTSONANTEZ AMAITUTAKO BERBAK | 15 |
| II. ADITZA | 17 |
| ZENBAIT ATZIZKI | 31 |
| HIZTEGIA | 35 |
| HIZTEGI ERRIMATUA | 79 |
| BIZKAIERAZ EGITEA ZER LITZATEKEEN | 111 |
| EUSKARA BATUTIK BIZKAIERARA ZER | 113 |
| PLAZAN ZEIN BIZKAIERA | 115 |
| BIZKAIERA BATUA | 117 |
| AZPI-EUSKALKIA | 119 |
| KOHERENTZIAREN UNITATE MINIMOA | 121 |
| KONFIANTZARAKO OHARRAK | 123 |
| ITURRIAK | 127 |



SARREREA

Bizkaierearen barruan, lan honetarako, bizkaiera batuagaz batera, hiru azpi-euskalki hartuko doguz. Azpi-euskalki bako-txak, deklinabideaz ganera, sistema osoa egiten dau, hots, bai deklinabidean, bai beste arloetan, ezaugarri jakin batzuk betetzen ditu beti eta, bidezko denez, azpi-euskalki batean sartzekotan, sistema osoa koherentziaz eroan behar da. Deklinabidearen arabera, EA, IA, IE azpi-euskalkiak daukaguz. EA: *alabea, berbea, zapatea, prakea, musikea, programea...* egiten dabenak. Azpi-euskalki honek bizkaierearen Mendebalde hartzen dau, Arratitak Uribe Kostaraino. IA: *alabia, berbia, zapatia, prakia, musikia, programia...* egiten dabenak. Azpi-euskalki honek bizkaierearen ekialdea hartzen dau, batez be Gipuzkoako bizkaierearen eremu guztia. IE: *alabie, berbie, zapatie, prakie, musikie, programie...* egiten dabenak. Honek bizkaierearen erdialdea hartzen dau: Durangaldea, Busturialdea, Lea-Artibai...

Badago azpi-sistema gehiago be, baina hori larregizko eta alperreko xehetasunetan sartzea litzateke. Bi aitatuko dodaz, dauken esparru zabalagaitik. Bata EA sistemearen azpikotzat edo bere kontrakzinotzat jo daitekeena, Txoriherriko eta Uribe Kostako zati handi bat hartzen dauena:

alabé, berbé, zapaté, praké, musíke, prográme... Bestea IE sistemearen azpikotzat eta bere kontrakzinotzat jo daitekeena, Artibai eskualdea hartzen dauena: *alabí, berbí, zapatí, prakí, musíki, prográmi...*

Ez dago esan beharrik azpi-euskalkien artean badagozela kointzidentziak, sistemen arabera kontrako dirudienak edo begiratu batean behintzat arraro samar egiten direnak. Esaterako, Txorierri zati batean -Larrabetzu, Lezama- eta Mungian *alabia, berbia, zapatia, prakia, musikia, programia...* egingo dabe, baina sistema osoa harturik, argi dago EA esparrutik hurrago dagozela, Gipuzkoa parteko eki-bizkaieratik baino. IE sistemearen barruan be OA eta UE azpi-sistemak bereiz daitekez, oso eremu zehatzak markatzen dabezanak: *alabie, berbie...* baina *astoa, gogoa, beroa...* Gernika inguruetan. Eta hemendik itsas alderantz eta Durangaldean *alabie, berbie...* baina *astue, gogue, berue...* Hemen be *astoa, gogoa...* egiten daben Gernika ingurutik Zornotzarainokoak horretan EA sistemeagaz bat datoz, baina dana osoan harturik, IE sisteman sartzen dira. Holako aldagaiak emoten luze jarraitu geinken arren, adibide batzuk nahikoa dira, bakotzak bere ezagutzak bere inguruan konproba daizan.


Lan honetan, beraz, bizkaierearen hiru azpi-euskalki nagusi horietara -EA, IA, IE- mugatuko gara eta ez da gitxi izango. Horrez ganera, kontuan edukitzekoa da bizkaiera batua be badagoela, batez be EA ereduan oinarritua, eta horixe da zerrenda hauetan BATUA jartzen dogunean esan nahi doguna. Bizkaiera batu hau Euskara Batu orokorragaz nahiko bat datorrela esan geinke. IA ereduak be tradizino idatzian presentzia handia eduki dau, batez be Mogeldarren eraginez, baina gehienbat bizkaiera batua EA ereduaren inguruan garatu dela esan daikegu.

Bizkaiera batuak badaukaz onartutako ezaugarri batzuk, gero beharbada berbetan inon entzuten ez direnak. Batasunak nahitaez dakarzan kontraesanak. Holan, esaterako, bizkaiera

batuan *egia, begia, eguzkia...* litzakezanak inon ez dira era horretara esaten. EA sisteman *egie, begie, eguzkie*, IA sisteman *egijja, begijja, eguzkijja*, IE sisteman *egijje, begijje, eguzkijje, edo egixe, begixe, eguzkixe, eta abar eta abar*.

Goazen, ba, eredutzat hartutako hiru sistemak edo azpi-euskalkiak garatzera. Euskara batutik bizkaierara deklinabidean dagoen alderik handiena A bokalez amaitzen diren edo A itsatsia daroen berbakaz gertatzen da. Batuan lege den $A + A = A$ bizkaieraz ez da inon horrela. Hartu daigun **alaba** berbea eta EA sisteman deklinabidea holan lihoake: *alabea, alabearen, alabeari, alabearentzat, alabea(ren)gaitik, alabea(ren)gan, alabeagaz, alabea(re)kin*, etab. IA sisteman *alabia, alabiaren, alabiari* eta abar. IE sisteman *alabie, alabien, alabieri* eta abar. Hau guztia, jakina, artikulu mugatua daroan deklinabidean. Deklinabide mugagabeen batuaren bardinak litzatekez danak: *alaba, alabaren...* zenbat *alaba, zenbat alabaren, zenbat alabari, zenbat alabarentzat, zenbat alaba(ren)gaitik, zenbat alabagaz*, etab.

Goazen orain deklinabideko oin zerrendak garatzera. Beti be hiztegi errimatuaren egitureari jarraituko dautsagu. Lehenengo bokalez amaitutako berbak hartuko doguz eta gero kontsonantez amaituak. Bokalez amaituetan A bokalez amaituak sail batean hartuko doguz eta generako bokalak beste batean.



I. DEKLINABIDEA

1) «A» BOKALEZ AMAITUAK GEHI ARTIKULU MUGATZAILA. BA-DA-GA-RA

BATUA: *Plagea, trabea, indabea... patxadea, iladea, boladea... algarea, ganbarea, ikarea... alabea, osabea... sakadea, begiradea... zartadea, ostikadea, betekadea...* NON kasua: *plagan, traban, patxadan, sakadan, ostikadan...* NOREN kasua: *plagearen, trabearen, ostikadearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Plagia, trabia, indabia... patxadia, iladia, boladia... algaría, ganbaría, ikaria... alabia, osabia... sakadia, begiradia... zartadia, ostikadia, betekadia...* NON kasua: *plagan, traban, patxadan, sakadan, ostikadan...* NOREN kasua: *plagiaren, trabiaren, ostikadiaren...*

IE: *Plagie, trabie, indabie... patxadie, iladie, boladie... algarie, ganbarie, ikarie... alabie, osabie... sakadie, begiradie... zartadie, ostikadie, betekadie...* NON kasua: *plagan, traban, patxadan, sakadan, ostikadan...* NOREN kasua: *plagien, trabien, ostikadien...* Hauen forma osoak —*plagieren, trabieren, ostikadieren...*— inon ez dira esan ez idatzi, nik dakidala behintzat.

BATUA: *Arrebea, kolegea... erea, aukerea, atmosfera... galderea, joerea... zabalerea, lodierea... kontakerea, sineskerrea... minberrea, onberrea...* NON kasua: *eran, joeran, minberan...* NOREN kasua: *erearen, joerearen, minberearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Arrebia, kolegia... eria, aukeria, atmosfera... galderia, joeria... zabaleria, lodieria... kontakeria, sineskeria... minberia, onberia...* NON kasua: *eran, joeran, minberan...* NOREN kasua: *eriaten, atmosferiaten, minberiaten...*

IE: *Arrebie, kolegie... erie, aukerie, atmosferie... galderie, joerie... zabalerie, lodierie... kontakerie, sineskerie... minberie, onberie.* NON kasua: *eran, joeran, atmosferan...* NOREN kasua: *erien, atmosferien, minberien...*

BATUA: *Partidea, intrigea... jirea, tirea, kondairea... segidea, despedidea... perspektibea, ofentsibea... pasibea, keridea...* NON kasua: *intrigan, segidan, ofentsiban...* NOREN kasua: *intrigearen, segidearen, ofentsibearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Partidia, intrigia... jiria, tiria, kondairia... segidia, despedidia... perspektibia, ofentsibia... pasibia, keridia...* NON kasua: *jiran, despedidan, ofentsiban...* NOREN kasua: *jiriaren, kondairiaren, despedidiaren...*

BATUA: *Togea, aprobea, antxobea... modea, pagodea... drogea, frogia... ganorea, polborea, metaforea... antipodea... hilgorea, aldasgorea...* NON kasua: *togan, modan, hilgoran...* NOREN kasua: *togearen, drogearen, polborearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Togia, aprobia, antxobia... modia, pagodia... drogia, frogia... ganoria, polboria, metaforia... antipodia... hilgoria, aldasgoria...* NON kasua: *togan, hilgoran, modan...* NOREN kasua: *togiaren, modiaren, polboriaren...*

BATUA: *Dudea, mudea... mugea, fugea... ardurea, itxurea... berdurea, abiadurea... kulturea, pinturea... logurea, azkurea...* NON kasua: *dudan, fugan, arduran...* NOREN kasua: *itxurearen, kulturearen, logurearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Dudia, mudia... mugia, fugia... arduria, itxuria... berduria, abiaduria... kultura, pintura... loguria, azkuria...*

NON kasua: *mudan, fugan, pinturan...* NOREN kasua: *ardu-riaren, kulturiaren, itxuriaren...*

IE: *Dudie, mudie... mugie, fugie... ardurie, itxurie... berdurie, abiadurie... kulturie, pinturie... logurie, azkurie...*

NON kasua: *mugan, dudan, pinturan...* NOREN kasua: *ardurien, pinturien, berdurien...*

Eta bardin A bokalez amaitzen diren hiztegiko beste sail guztietan. Bakotxetik berba bat edo bi bakarrik daroan zerrenda bat emongo dogu.

BATUA: *Zapatea, orekea... kastea, koskea... famea, arimea... penea, pertsona... okelea, arbolea... marrea, gerrea... gerizea, larrosea... saltsea, lotsea... dantzea, baldintzea...*

NON kasua: *zapatan, ariman, gerran...* NOREN kasua: *orekearen, penearen, baldintzearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Zapatia, orekia... kastia, koskia... famia, arimia... penia, pertsonia... okelia, arbolia... marria, gerria... gerizia, larrosia... saltsia, lotsia... dantzia, baldintzia...*

NON kasua: *kastan, arbolan, lotsan...* NOREN kasua: *zapatia- ren, dantziaren...*

IE: *Zapatie, orekie... kastie, koskie... famie, arimie... penie, pertsonie... okelie, arbolie... marrie, gerrie... gerizie, larrosie... saltsie, lotsie... dantzie, baldintzie...* NON kasua: *dantzan, kastan, gerizan...* NOREN kasua: *zapatien, lotsien, baldintzien...*

2) «E» BOKALEZ AMAITUAK

BATUA: *Jabea, bidea... atea, trukea... artea, merkea... tris- tea, moztea... emea, gunea... belea, entzulea... errea, dorrea... gosea, luzea... etxea, kotxea... atzea, ezkontzea...*

NON kasua: *bidean, merkean, ezkontzean...* NOREN kasua: *jabearen, dorrearen, etxearen...*

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: *Jabia, bidia... atia, trukia... artia, merkia... tristia, moz-tia... emia, gunia... belia, entzulia... erria, dorria... gosia, luzia... etxia, kotsia... atzia, ezkontzia...* NON kasua: *trukian, bidian, gosia...* NOREN kasua: *jabiaren, etxiaren, ezkontzia-ren...*

IE: *Jabie, bidie... atie, trukie... artie, merkie... tristie, moz-tie... emie, gunie... belie, entzylie... errie, dorrie... gosie, luzie... etxie, kotxie... atzie, ezkontzie...* NON kasua: *artien, trukien, merkien...* NOREN kasua: *jabien, errien, entzulien...*

3) «I» BOKALEZ AMAITUAK

BATUA: *Argia, ugaria... tokia, guzurtia... eztia, eguzkia... komenia, tximinia... eulia, zolia... herria, iturria... bizia, iku-sia... ontzia, igurtzia...* NON kasua: *argian, tokian, igurtzian...* NOREN kasua: *argiaren, tokiaren, zoliaren...*

EA: *Argie, ugarie... tokie, guzurtie... eztie, eguzkie... komenie, tximinie... eulie, zolie... herrie, iturrie... bizie, iku-sie... ontzie, igurtzie...* NON kasua: *argien, tokien, herrien...* NOREN kasua: *argiaren, eguzkiaren, iturriaren...*

IA: *Argijja, ugarijja... tokijja, guzurtijja... eztijja, eguzki-jja... komenijja, tximinijja... eulijja, zolijja... herrijja, iturri-jja... bizijja, ikusijja.. ontzijja, igurtzijja...* NON kasua: *argi-jjan, eguzkijjan, herrijjan...* NOREN kasua: *argijjaren, eztijjaren, guzurtijjaren...*

IE: *Argijje, ugarijje... tokijje, guzurtijje... eztijje, eguzki-jje... komenijje, tximinijje... eulijje, zolijje... herrijje, iturri-jje... bizijje, ikusijje... ontzijje, igurtzijje...* NON kasua: *argi-jjen, eguzkijje, bizijjen...* NOREN kasua: *argijjen, eztijjen, ikusijjen...*

4) «O» BOKALEZ AMAITUAK

BATUA: *Beroa, gogoa... kontrakoa, gorrotoa... astoa, zorriztoa... sanaa, modernoa... leloa, mozolaa... lerroa, ziga-*

rroa... gozoa, usoa... atsoa, moltzoa... NON kasua: beroan, astoan, gozoan... NOREN kasua: gogoaren, sanoaren, leloaren...

EA: Aurrekoaren bardin dena.

IA: Berua, gogua... kontrakua, gorrotua... astua, zorriztua... sanua, modernua... lelua, mozolua... lerrua, zigarrua... gozua, usua... atsua, moltzua... NON kasua: beruan, astuan, gozuan... NOREN kasua: goguaren, astuaren, moltzuaren...

IE: 1) Beroa, gogoa... Batuaren bardin dena.

2) Berue, gogue... kontrakue, gorrotue... astue, zorriztue... sanue, modernue... lelue, mozolue... lerrue, zigarrue... gozue, usue... atsue, moltzue... NON kasua: beruen, gozuen, goguen... NOREN kasua: goguen, zigarruen, astuen...

5) «U» BOKALEZ AMAITUAK


BATUA: Zerua, burua... galdua, mundua... zakua, lekua... eskua, txistua... gobernua, soinua... ganbelua, akulua... errua, porrua... mezua, mosua... galtzua, zoriotsua... NON kasua: zeruan, eskuan, akuluan... NOREN kasua: buruaren, galduaren, soinuaren...

EA: Zerue, burue... galdue, mundue... zakue, lekue... eskue, txistue... gobernue, soinue... ganbelue, akulue... errue, porrue... mezue, mosue... NON kasua: buruen, akuluen, gobernuen... NOREN kasua: zeruen, munduen, akuluen.

Hemen be forma osoak -zerueren, mundueren, gobernueren...- ez dira inon esan ez idatzi, nik dakidala.

IA: Zerua, burua... galdua, mundua... zakua, lekua... eskua, txistua... gobernua, soinua... ganbelua, akulua... errua, porrua... mezua, mosua... galtzua, zoriotsua... NON kasua: zeruan, mosuan, galduan... NOREN kasua: munduaren, zeruaren, itsuaren...

IE: Zerue, burue... EA-ren bardin dena.



KONTSONANTEZ AMAITUTAKO BERBAK GEHI ARTIKULU MUGATZAILEA

1) KONTSONANTE AURREKO BOKALA A-E-O DAUKENAK

Berbearen azken bokala, amaierako kontsonantearen aurrekoa, A-E-O hauetako bat denean, bai batuak eta bai azpi-euskalki guztiek bardin egiten dabe. A-E-O + kontsonantea + A = A. Jar daigun adibide zerrenda bat:

A: *zabal, leial, laban, kaiman, txar, bedar, narras, jolas, gatz, lebatz...*

E: *Epel, gibel, ahalmen, kirten, oker, esker, ames, artetz, ertz, saihets...*

O: *Bolbol, odol, sakon, gizon, zekor, bizkor, arroz, apropos, motz, bihotz...*

Hauek denek sistema guztietan A hartzen dabe artikulu mugatzailetzat: *zabala, txarra, saihetsa, kirtena, sakona, motza* eta abar. Noren kasuan be, berbea osorik esatekotan, denek forma bardinak hartzen dabez: *zabalaren, ertzaren, zekorren...* Kontrakzinoetan AN edo EN, lekuen arabera: *zabalan, odolan, bihotzan...* edo *zabalen, odolen, bihotzen...*

Non kasuan ostera banandu egiten dira. Batuak eta EA sistemeak EAN: *zabalean, gatzean, okerrean, odolean...* IA sistemeak IAN: *zabalian, gatzian, okerrian, odolian...* Eta IE sistemeak IEN: *zabalien, gatzien, okerrien, odolien.*

2) KONTSONANTE AURREKO BOKALA «I» DAUKENAK

BATUA: *Isila, txakila... mina, gordina... mirriza, dizdiza... zumitza, likitsa.* NON kasua: *Isilean, txakilean... minean, gordinen... mirrizean, goizean... zumitzean, likitsean...* NOREN kasua: *isilaren, txakilaren... minaren, gordinaren... mirrizaren, goizaren... zumitzaren, likitsaren...*

EA: *Isile, txakile... mine, gordine... mirrize, dizdize... zumitze, likitse.* NON kasua: *Isilean, txakilean... minean...* NOREN kasua: *isil(ar)en, txakil(ar)en... min(ar)en...*

IA: *Ixilla, txakilla... miña, gordiña... mirriza, dizdiza... zumitza, likitsa...* NON kasua: *ixillian, txakillian... miñian...* NOREN kasua: *ixilla(re)n, txakilla(re)n... miña(re)n...*

IE: *Ixille, txakille... miñe, gordiñe... mirrize, dizdize... zumitze, likitse...* NON kasua: *ixillien, txakillien... miñien...* NOREN kasua: *ixillen, txakillen... miñen...*

3) KONTSONANTE AURREKO BOKALA «U» DAUKENAK:

BATUA: *Laguna, jauna, eztula, plusa, trukutza...* NON kasua: *lagunean, eztulean, plusean...* NOREN kasua: *lagunaren, eztularen, plusaren...*

EA: *Lagune, jaune, eztule, pluse, trukutze...* NON kasua: *lagunean, eztulean, plusean...* NOREN kasua: *lagun(ar)en, eztul(ar)en, plus(ar)en...*

IA: *Laguna, jauna, eztula, plusa, trukutza...* NON kasua: *lagunian, eztulian, plusian...* NOREN kasua: *laguna(re)n, eztula(re)n, plusa(re)n...*

IE: *Lagune, jaune, eztule, pluse, trukutze...* NON kasua: *lagunien, eztulien, plusien...* NOREN kasua: *lagunen, eztulen, plusen...*

II. ADITZA

Aditza da bizkaieretik erriman agiri dauen bigarren diferentzi eremu nagusia, bai aditz forma ohikoetan *-dau, neban, zebe, geinke, daiten-* bai batez be laguntzaile ezbardin batzutan *-daigun, daizuen, daiket, zeinke...*-, nori flexinoetan *-dautsat-ot, neutsan-on, jatort, jatorko, daitekio, neuskio, geinkio, jako, jakon, dakartzu...*- objektu-subjektuen plural-gintzan *-daukadaz, dakarguz, dautsoz, jakoz, neuskioz, baleutzuz, nebazan-en, genduzan-zen, egozan-zegozan-en...*- eta agertuko diren beste batzutan. Eremu nahiko konplexu hau azaltzeko modurik egokiena aditzak banan-banan hartu eta euren formarik ohikoenak emotea izango da. Eta hauen artean erabilienak baltzez markatzen dira.

IZAN

Naz, haz, da, gara-gare, zara, zare-zarie, dira-dire.

Naiak, **naiatzu-e**, natxatzu-e, **naiako**-natxako, naiake-natxake.

Jat, jak-n, jako, jaku, jatzu, jatzue, jake. Jataz, jazak-n, jakoz, jakuz, jatzuz, jatzuez, jakez.

Nintzan-en, hintzan-en, zan-zen, ginan-gintzan-gintzazan, ginen-gintzen-gintzazen-gintzezan, zinan-en, zintzan-en, zintzazan-zintzezan, zinien-zintzien-zintziezan.

Nintzaan, **nintzakon**, nintzatzun, nintzatzuen, nintzaken.

Nintzake-nintzateke, ginake-ginateke, litzake-litzateke, gintzakez, zintzakez, zintzakeze, litzakez.

Nintzakik-n, nintzakio, nintzakizu, nintzakizue, nintzakie.

Litzakit, litzakik-n, litzakio, litzakigu, litzakizu-e, litzakie.

Litzakidaz, litzakizak-n, litzakioz, litzakiguz, litzakizuz, litzakizuez, litzakiez.

Naiteke, haiteke, daiteke, gaitekez, zaitekez, zaitekeze, daitekez.

Naitekio, naitekizu... daitekit, daitekio... gaitekioz, gaiteki-zuz...

Daitekidaz, daitekioz, daitekizuz...

Neinteke, heinteke, leiteke, geintekez, zeintekez, zeintekeze, leitekez.

Neintekik-n, neintekio... leitekik-n, leitekigu... geintekioz, geintekizuz...

leitekidaz, leitekiguz, leitekizuez...

Naiten, haiten, daiten, gaiten-gaitezan-en, zaiten-zaitezan-zen, daitezan-en.

Neinten, heinten, (z)eiten, geintezan-en, zeintezan-en, zeintezien, (z)eitezan-en.

Zakidaz-e, zakiguz-e. Beite, beitez. Bekit-bekidaz, bekigu-bekiguz, bekizu-bekizuz, bekie-bekiez.

EDUN

Dot, dok-n, dau-deu, dogu, dozu, dozue, dabe-dabie-daue-daude-deure-deurie.

Dodaz-ditut, dozak-n-dituk-n, dauz-ditu, doguz-ditugu, dozuz-dituzu, dozuez-dituzue, dabez-dabiez-daez-deurez...

Datsat-ot, dauat-daunat, dautzut-uet, dautset-dautsoet-deutset.

Daust-deust-dost-dust, daua, dautsa-deutso, dausku, dautzu-e, deutse-dautse.

Dauste-deuste, daue, dautsoe, dauskue, dautzu-e, dautsee-dautsie.

Dauagu-daunagu, dautsogu-deutsagu, dautzugu, dautzuegu, dautsegu.

Daustazu, dautsazu-dautsozu, dauskuzu, dautsezu.

Daustaz, dautsaz-oz, dauskuz, daustez, dautsez-deutsiez, dauskuez, daustazuz, dauskuzuz, dautsezuz...

Neban-neuen, eban-zeban-zeuen, eben-zeben-euren-zeuren-zeurien.

Nebazan-en, ebazan-en, ebezan-en, genduzan-en, zenduzan-en.

Neutsan-neutson, neutzun, neutzuen, neutsen. Neutsazan, neutzuzan...

Geuntsan-geuntson, geuntzun, geuntzuen, geuntsen. Geuntsazan, geuntzuzan...

Eustan, eutsan-eutson-zetsan, eutzun-zeutzun, eutzuen-zeutzuen, eutsen-zetsen.

Eustazan, eutsazan, eutzuzan...

Neuke, heunke, leuke, geunke, zeunke, zeunkie, leukie. Neukez, heunkez, leukez, geunkez...

Neuskik-n, neuskio, neuskizu, neuskizue, neuskie. Neuskiaz, neuskioz, neuskizuz, neuskiez. Leuskit, leuskik-n, leuskio, leuskigu, leuskizu, leuskizue, leuskie.

Leuskidaz, leuskiaz, leuskioz, leuskiguz...

Geunskio, geunskizu... zeunskit, zeunskio, zeunskigu... geunskioz, zeunskioz...

Baleust, baleua-baleuna, baleutso, baleusku, baleutzu, baleutzue, baleutse.

Baleuste, baleue-baleune, baleutsoe, baleuskue, baleutzue, baleutsee-ie.

Baleustaz, baleuaz-baleunaz, baleutsoz... baleustez, baleuez-baleunez, baleutsoez, baleuskuez...

EGIN

Beste euskalkietako EZAN laguntzailearen ordezko bizkaieraz EIN edo EGIN da. Baleiteke gaurko IN-EIN-EGIN aditzagaz zerikusirik ez eukitzea, baina utz daigun horretan.

Daiket, daikék-n, daike, daikegu, daikezu, daikezue, daikée-ie.

Daikiat-daikinat, daikiot, daikizut, daikizuet, daikiet.

Daikit, daikik-n, daikio, daikigu... daikide, daikiae-daikine, daikioe, daikigue...

Daikedaz, daikezak-n, daikez, daikeguz... daikiodaz, daikizudaz... daikidaz, daikioz, daikiguz... daikidez, daikioez...

Neike, heinke, lei-leike, geinke, zeinke, zeinkee-ie, leikee-ie.

Neikio, neikizu... leikit, leikigu... **geinkio, geinkizu...** leikide, leikigue...

Neikez, heinkez, leiz-leikez, geinkez... Neikioz, neikizuz... Leikidaz, leikioz, leikiguz... leikidez, leikiguez...

Da(g)idan, da(g)ian, da(g)igun, da(g)izun, da(g)izuen, da(g)ien.

Da(g)idazan, da(g)izan, da(g)iguzan, da(g)izuzan...

Nengian-en, hengian-en, egian, gengian-en, zengian-en, e(g)ien. Negizan, hengizan, egizan, gengizan, zengizan, zengizen-ien, egiezan.

Da(g)istan, da(g)ion-da(g)itson, da(g)iskun, da(g)itzun... E(g)istan, e(g)ion, e(g)iskun... **Da(g)istazan, da(g)iskuzan...** e(g)istazan, e(g)iozan...

Da(g)iala, da(g)iela, da(g)izula... da(g)izala, da(g)iezala, da(g)izuzala...

Neizala-nengizala, e(g)izala, gengizala, zengizala, zengizela, e(g)iezala.

Neiola-nengiola, e(g)iola, e(g)izula... e(g)istala, e(g)iola, e(g)iskula...

Neiozala, eistazala, eiskuzala...

E(g)idazu, e(g)iozu, e(g)iguzu, e(g)iezu. E(g)idazuz, e(g)iozuz...

Bei-begi, beiz-begiz.

EKARRI

Dakart, dakark-dakarran... dakarre. Dakardaz, dakarz, dakarguz, dakarrez-dakardez.

Dakarst, dakarra, dakartso, dakarsku, dakartzu, dakartzue, dakartse.

Dakarstazu, dakartsozu, dakarskuzu...

Dakarstaz, dakartsoz, dakartzuz... Dakartsodaz, dakartzudaz... dakarraguz-dakarnaguz, dakartzuguz, dakartseguz... Dakarste, dakartsoez, dakarskuez...

Nenkarren, henkarren, (z)zekarren, genkarren, zenkarren, zenkarzen, (z)ekarreen-ien.

Nekarzan, henkarzan, (z)ekarzan, genkarzan... Nekartzuzan, nekartzozan... (Z)ekarstan, (z)ekartson, (z)ekarskun... Genkarraan, genkartson, genkartzun...

Genkartsozan, genkartzuzan...

Nenkarke... genkarke, zenkarke, zenkarkee-ie, lekarkee-ie. Nenkarkez, lekarkez... Nenkarkio, nenkarkizu... lekarkit, lekarkio... zenkarkit, zenkarkigu... Nenkarkioz, lekarkidaz, zenkarkidaz...

Eka(r)zu, eka(r)zue, bekar, bekarre. Eka(r)zuz, eka(r)zuez, bekarz, bekarrez.

EROAN

Daroat, daroak-n, daroa, daroagu, daroazu, daroazue, daroe-darioe.

Daroadaz, daroazak-n, daroaz, daroaguz... Daroast, daroatso, daroasku...

Daroaat, daroatsot, daroatzut... Daroadazu-daroastazu, daroatsozu, daroaskuzu, daroatsezu... Daroaste, daroaskue, daroatzue... Daroatsoz, daroaskuz, daroastez, daroatzuez...

Naroa, haroa, garoaz, zaroaz, zaroaze. Haroat, zaroadaz, zaroadaze. Naroazu, garoazuz, garoazuez.

Neroan-neroian, heroan-heroian, (z)eroan-(z)eroian, geroan-geroian, zeroan-zeroian, zeroen-zeroien, (z)eroen-(z)eroien.

Nero(i)azan, hero(i)azan, (z)ero(i)azan... Nero(i)atson, nero(i)atzun... **Neroatsozan**, **neroatzuzan**... (Z)ero(i)astan, (z)ero(i)atson, (z)ero(i)atzun...

Ninderoan, hinderoan, ginderøazan, zinderoazan...

Neroake, heroake, leroake, geroake, zeroake, zeroakee-ie, leroakee-ie.

Neroakez, heroakez, leroakez... Ninderoake, ginderoakez... Neroakioz, neroakizuz... leroakidaz, leroakioz, leroakiguz...

Eroaizu, **eroaizue**, **eroadazu**, **eroaiozu**, **eroaiozue**... **Eroizuz**, **eroaidazuez**...

Beroa, beroe, **beroz**, **beroez**.

EUKI

Daukat-daukot-dekot, **daukak-n/daukok-n/dekok-n**, **dauka-dauko-deko**, **dauke-daukie-deke-dekoie-dekie**.

Daukadaz, **daukazak-n**, **daukaz-daukoz-dekoz**, **daukaguz**...

Nauka-nauko, **naukazu**, nauke. Zaukadaz, **zaukaz**, **zaukaguz**... **Gaukazak-n**, **gaukaz**, **gaukazuz**...

Neukan-neukon, (z)eukan-(z)eukon, **geunkan-geunkon**, **zeunkan-zeunkon**...

Neukazan, **heunkazan**, **eukazan**, **geunkazan**, **zeunkazan**, **eukezan**.

Nindeukan, gindeukazan, zindeukazan... Zindeukadazan, zindeukazan...

Eukizu-e, **eukizuz-ez**, beuka, beuke-beukie, **beukaz**, **beukez**.

Neukake, **heunkake**, **leukake**, **geunkake**, **zeunkake**, **leukeke-ie**.

Neukakez, **heunkakez**, **leukakez**...

JAKIN

Dakit... dakie. Dakidaz, dakizak-n, dakiz, dakiguz, daki-zuz, dakiez.

Nenkien, ekien-ekian, ekien-ekieen.

Nenkizan, henkizan, ekizan, genkizan, zenkizan, zenkie-zan, ekiezan.

Banekiz, balekiz, bagenkiz, bazenkiz, balekiez.

ESAN

Dinot, dinok-n, dino, dinogu, dinozu, dinozue, dinoe.

Dinodaz, donozak, dinoz, dinoguz...

Dinost, dinotso, dinosku, dinotzu, dinotzue, dinotse.

Dinostaz, dinotsoz...

Ninoen, hinoen, (z)inoen, ginoen, zinoen, (zi)inoien.

Ninoezan, inoezan, ginoezan, inoiezan.

Dirautsat, dirautsut, dirautsuet, dirautset. Dirautsadaz, dirautsudaz...

Bistan da aditz hauek, **esan**-en esanahia euki arren, ez datozela aditz horretatik. **Esan** aditzak baeukan bere joko pro-pioa. Bizkaierazko testu zaharretan *besa*, *desadan*, *desagun* agertzen dira: *esan bei*, *esan dagidan*, *esan daigun*.

ERITZI-ERITXI

Deritxot, deritxok-n, deritxo, deritxogu, deritxozu, derit-xozue, deritxoe.

Edo: deritzot, deritzok-n, deritzo...: erizten deutsot, erizten deutso...

Deritxat, deritxak-n, deritxo, derisku, deritxu, deritxue, **deritxe**: deitzen naz, deitzen haz... hots, halako izena daukat.

Neritxon, eritxon, geritxon.

Neritxoke, heritxoke, leritxoke... Baneritxo, baheritxo, baleritxo, bageritxo...

EGON

Nago, hago, dago, gagoz, zagoz, zagoze-zagozie, dagoz.

Jagot, jagoko, jagoku, jagotzu, jagotzue, jagoke.

Nagoko, nagotzu, nagoke... Zagodaz, zagokoz, zagokuz...
Jagodaz, jagokoz...

**Nengoen, hengoen, (z)egoen, gengozan-en, zengozan-en,
zengozien, (z)egozan-en.**

Nengokon, nengotzun... Zengodazan, zengokozan...
Gengokazan, gengokozan...

**Nengoke, hengoke, legoke, gengokez, zengokez, zengoke-
ze, legokez.**

Nengokik, nengokio, nengokizu... **Legokit, legokio, legoki-
gu...** Gengokioz, gengokizuz... Zengokidaz, zengokioz...
Legokidaz, legokioz, legokiguz...

**Banengo, bahengo, balego, bagengoz, bazengoz, bazengo-
ze, balegoz.**

Banengoko, banengotzu... Balegot, balegoko, balegoku...
Bazengodaz, bazengokoz, bazengokuz... Bazengodaze,
bazengokoze... Balegodaz, balegokoz...

Bego, begoz.

IBILI

Nabil, habil, dabil, gabiz, zabiz, zabize-zie, dabiz.

Nabilko, nabiltzu... Jabilt, jabilko, jabilku... Gabilkoz,
gabiltzuz... Zabildaz, zabilkoz... Jabildaz, jabilkoz, jabil-
kuz...

**Nenbilen, henbilen, (z)ebilen, genbizan-en, zenbizan-en,
(z)ebizan-en.**

Nenbilkon, nenbiltzun... (Z)ebildan, (z)ebilkon, (z)ebil-
tzun... Genbilkozan, genbiltzuzan... Zenbildazan, zenbilko-
zan... (z)ebildazan, (z)ebilkozan...

**Banenbil, bahenbil, balebil, bagenbiz, bazenbiz, bazenbi-
ze, balebiz.**

Banenbilko, banenbiltzu... Balebilt, balebilko...
Bagenbilkoz, bagenbiltzuz...

Bazenbildaz, bazenbilkuz... Bazenbildaze, bazenbilko-
ze... Balebildaz, balebilkoz...

Nenbilke, henbilke, lebilke, genbilkez, zenbilkez, zenbil-
keze, lebilkez.

Nenbilkiu, nenbilkizu... lebilkit, lebilkiu, lebilkigu... gen-
bilkiuz, genbilkizuz... lebilkidaz, lebilkiuz...

Bebil, bebiz. Bebilt, bebilko, bebilku... bebildaz, bebil-
koz...

JOAN

Noa, hoa, doa, goaz, zoaz, zoaze-zie, doaz.

Noako, noako, noatzu... joat, joako, joaku... goakoz, goa-
tzuz... zoadaz, zoakoz, zoakuz... zoadaze-zie, zoakoze-zie...
joataz, joakoz, joakuz...

**Nino(i)an-en, hino(i)an-en, (zi)joian-en, gino(i)azan-zen,
zino(i)azan-zen, (zi)joiazan-en.**

Nino(i)akon, nino(i)atzun... (zi)joatan, (zi)joakon, (zi)joa-
kun... gino(i)akozan, gino(i)atzuzan... zino(i)adazan, zino(i)a-
kozan... (zi)joatazan, (zi)joakozan...

Ninoake, hinoake, lijoake, ginoakez, zinoakez, zinoakeze-
zie, lijoakez.

Ninoakio, ninoakizu... lijoakit, lijoakio, lijoakigu... ginoak-
kioz, ginoakizuz... zinoakidaz, zinoakiguz... lijoakidaz, lijoa-
kioz...

**Banijoa, bahijoa, balijoa, baginoaz, bazinoaz, bazinoaze-
zie, balijoz.**

Banijoatzu, banijoako... balijoat, balijoako, balijoatzue...
baginoakoz, baginoatzuz... bazinoadaz, bazinoakuz... balijo-
ataz, balijoakoz, balijoakuz...

Beijoa, beijoaz. Beijoatzu, beijoako... beijoatzuz, beijo-
atzue...

ETORRI

Nator, hator, dator, gatoz, zatoz, zatoze-zie, datoz.

Natorko, natortzu, natorke... Jatordaz, jatorkoz, jator-tzuz... ga(ia)torkoz, ga(ia)tortzuz... zatordaz, zatorkoz... zatordaze, zatorkoze...

Nentorren, hentorren, (z)etorren, gentozan-en, zentozan-en, (z)etozan-en.

Nentorkon, nentortzun... (z)etordan, (z)etorkon, (z)etortzun... gentorkozan-en, gentortzuzan-en... zentordazan-en, zentorkozan-en... (z)etordazan-en, (z)etorkozan-en, (z)etortzuzan-en...

Nentorke, hentorke, letorke, gentorkez, zentorkez, zentorkeze, letorkez.

Nentorkio, nentorkizu... letorkit, letorkizu... gentorkioz, gentorkizuez... zentorkidaz, zentorkioz... zentorkidaze, zentorkiguze... letorkidaz, letorkioz, letorkizuz...

Banentor, bahentor, baletor, bagetoz, bazentoz, bazentozze, baletoz.

Banentorko, banentortzu... baletort, baletorko, baletorku... bagentorkoz, begentortzuz... bazentordaz, bazentorkoz... baletordaz, baletorkuz...

Betor, betoz. Betort, betorko, betorku... betordaz, betorkoz, betortzuz...

JARDUN

Dihardut, diharduk-n, dihardu, dihardugu, diharduzu, diharduzue, dihardue.

Niharduen, hiharduen, ziharduen (hak-haiek), ginarduen, zinarduen (zuk-zuek).

Banihardu, bahiardu, balihardu, baginardu, bazinardu, bazinardue, balihardue.

Niharduke, hiharduke, liharduke, ginarduke, zinarduke, zinardukee-ie, lihardukee-ie.

EUTSI

Ez dakit ondorengo aditz formak gaur ezagutzen dogun EUTSI aditzetik datozen, baina horretan utziko dogu. Beti datiboagaz erabiltzen da eta JARDUN edo ARI IZAN esan gura dau. Aditz hau gaur be Lea-Artibai guztian eta Busturialde zati batean oso ezaguna da.

Deutsot, deutsok-n, deutso, deutsogu, deutsozu, deutsozue, deutsoe-deutse.

Neutson, heuntson, eutson, geuntson, zeuntson, zeuntsoen, eutsoen-eutsen.

Baneutso, baheuntso, baleutso, bageuntso, bazeuntso, bazeuntsoe, baleutsoe-baleutse.

Aditz honek ondoko berban datiboa eskatzen dauela badi-rudi be, ez da holan. *Lanean deutsot, dantzan deutse, zertan deutsozu...* eta ez *lanari deutsot, dantzari deutse* etab. Forma hauek beste esanahi bat eukiko leukie.

ERAGO-ERAGON

Aditz honek JARDUN, ARI IZAN esan gura dau eta bere jokoa galtzear dago. Holan jokutzen da: ***Daragoiot, daragoiok-n, daragoio, daragoiogu, daragoiozu-daragoiozue, daragoioe.*** Iraganean: ***Neragoion...eragoion... eragoioen.*** Beste formak apenas aspaldion esan diren, baina aditz honek be beste aditz trinkoen formak bardin hartu ezinik ez dauka: ***neragoioke, leragoioke... baneragoio, baleragoio... daragoio-dan...***

ERDU, EUTSI

Aditz forma biok oso erabiliak dira gaur be eta forma horietan fosildurik dagoz.

Erdü: etor zaitez, etor zaitez. Gaur zuek subjektu denean, ***erdue*** edo ***erduze*** entzuten da.

Eutsi: hartu zuk. **Eutsok-eutson:** hartu hik. Objektu pluralean: **eutsiz, eutsoz-eutsozak, eutsozan-eutsonaz.**




Aditz forma batzuren idazkeran TS barik TZ hobesten dot, *zuri-zueri* flexino datiboa denean. Horrela: *dautzut, neutzun* eta abar. Beste pertsona batzutan agiri den S hori (*daust, dausku, baleusku...*) inherentea ala epentetikoa edo jantzigarria ete da? Jo daigun flexinoaren inherentea dela: *daust-deust, dausot-deusat, dausku-deusku, dausut-deusut, dauset-deuset-deusiet* eta abar. Hortik *dautsot-deutsat, dausut-deutsut...* Honela izanik, legea ez da bigarren pertsonan betetzen: *dauat-deuat, daunat-deunat*. Badagoz halan be *emongostat, esangostat...* formak (nik hiri), lorratz hori baieztu daikienak. Flexino intransitiboetan ostera S hori ez da gehienez agiri: *jat, jako, jaku, jatzu...* Baina hemen be badagoz *jast, jatso, jasku* formak. Beste forma batzutan era biak agiri dira: *emoi-dazu-emoistazu, daiodan-daitsodan, daidan-daistan...*

Kasu batzutan sinonimo soilak izan arren, beste batzutan diferentzia beharrezko da, kointzidentzia bat bereizteko. S horren bitartekotza barik, *daigun* bardin izan daiteke guk hura (*dezagun*) nahiz hak guri (*diezagun*). Bigarren hau *daiskun* egin ezkerro, ez dago ekibokorik. Beste batzutan badirudi S premina handi barik tarteratzen dela: *neuskio, leuskio...* Hemen S datibotik urrun dago, bitartean elementu garrantzitsu bat dagoela. Beste batzutan, ostera, ez da bardin jokutzen: *neuke-neuskio*, baina *neike-neikio* eta abar. Baina hementxe be badagoz *neiskio, leiskio...*, baita *nekitso, lekitso, lekist...* formak be.

Bizkaieraz be, euskara guztian lez, nori singularraren ezau-garri nagusia O bokala da, eta pluralarena E: *neikio, neikie, neuskio, neuskie, esaiok-esaiek-esaioek, emoiozu-emoiezu...* Batzutan TSO flexinoa TSA bihurtzeak (*neutsan, geuntsan...*) edo DAU barik DEU egiteak ez dauka zerikusirik aditzaren elementuetan. Segurrenik hitzunengan DEU hedatuago izan da DAU baino, baina batasun oren inkongruentzien arabera, hau

nagusitu da bizkaiera batuan, nahizta gero flexinoetan *deutsat*, *deutsagu* eta abar egin. DAU-DEU edo JA-ZA aldatu ezik (DI edo JAI-ZAI eginez), datiboaren O eransteke, tartean zubi bat beharrezko da: *dautso-deutso-deutsa*, *jako-zako*... Bizkaieraz be, aurretik I denean, ez da bitartekorik behar: *neio*, *leio*... *dai-kio*, *daitekio*, *litzakio*, kasu honetan datiboak aurreko E bokala I bihurrazoten dauela: *daike-daikio*, *daiteke-daitekio*, *litzateke-litzakio*. *Niri* edo *guri* flexinoetan ez legoke premina zorrotzik: *daut*, *dauku*... Eta hain zuzen euskalki batek edo batzuk horixe egiten dabe. Baina sarritan *nik ha* eta *hak niri* bereizteko, S beharrezko da: *dot-dost*, *dinot-dinost*, *daroot-daroast* eta abar.

Hauek honela, S hori datiboko flexino guztien inherentea bada, batzutan ederto ezabatzen da. Beharrezko den flexinoetatik besteetara be (ez beti eta ez denetara) arrastatua izan dela suposatzea ez da zentzunbakoa. Baina jantzigarri edo eufoniko soila barik, osagarri organikoa dela jorik be (eta beharbada horixe jo beharko da), bizkaiereak ez dau praktika koherenterik garatu. Beraz, *zuri-zueri* flexinoetan, idazkeran datiboaren ezaugarria nagusitzeari hobeto deritxot. Holan aditz guztien datibo horiek forma berean gelditzen dira: *dautzut*, *neutzun*... *jatzu*, *najatzu-natxatzu*, *balijatzu-balitxatzu*... *datortzu-jatortzu*, *nagotzu-najagotzu*, *nabiltzu-najabiltzu*, *doatzu-joatzu*... *dakartzut*, *daitzun*, *nei(t)zun*... Eta bide batez beste euskalki batzutako *dautzut* ereduagaz batera goaz.



ZENBAIT ATZIZKI

A = E (U-I-ren atzetik): - *lagune, egune, dogune, txakurre, egurre, hutse, gorputze, eztule...; egine, ezine, ñirñirre, itse, hitze, sitse, isile, mutile, misile...*

- *lume, gure, onure, kulture, burle, matrikule, sekule, azkurre, ardure, logure, konture, lekure, arrautze, haruntze, aldakuntze...; bire, dire, tire, begire, despedide, arime, lastime, dotrine, premine, makile, neskatile, palize, gerize, banitze, balitze... artiste, kokiste...*

ADU-AU-EU: *kantadu, paradu, olgadu... kantau, parau, olgau... kanteu, pareu, olgeu...*

AGO = AO, AU: *harago, honago, ederrago... = harao, honao, ederrao... harau, honau, ederrau... / Nago, dago... = nao, dao... nau, dau...*

AN = EN: *mailen, pantailen, irlen, makilen... sekulen, matrikulen... arimen, preminen, kanpainen... garizumen, fortunuen... gerizen, peskisen... musen (musa), pausen...*

ARREN: *pozarren, Jainkoarren, amoriarren.*

AZO-ARAZO: *atarazo, janazo, biztuazo, galazo... janarazo, biztuarazo, galarazo...*

DI-TI: *handi, hemendi, inondi... bertati, etxeti, horti, kanpoti...*

DO-TO: *ondo, txarto, ederto, hobeto, polito, gaiztoto, zuzento...*

E = A: *agura, altara, laba, landara, lora, muna, kurutza, emakuma, kuma: txorikuma, sasikuma...; una: hutsuna, larriuna, baltzuna...: la, tzaila: jola, jagola, igola... motzaila, jotzaila, saltzaila, zabaltzaila... saharda, basurda... andra, etxe-koandra...*

EN: *hartuen, emonen, eginen, joanen... Horrek ez deko joanenik, horrek ez deko hasienik be: ez dauka joatekorik be, ez dau hasterik be merezi.*

ETAN-ATEN-KETAN: *pentsetan, kantetan, sometan, tope-tan... pentsaten, kantaten, somaten, topaten... pentsaketan, ulerketan, apurketan...*

GAITI-KAITI: *nigaiti, zugaiti, zegaiti, joateagaiti... zuekai-ti, besteakaiti...*

GAITIO-GAITINO,

GAITI-KAITI: *nigaitio, zugaitio, horregaitio... nigaitino... nigaiti, zugaiti, zegaiti, joateagaiti... zuekaiti, gorasoakaiti...*

GANDI-GANDIO, KANDI-KANDIO: *gugandi-gugandio... zuekandi-zuekandio...*

GAZ: *nigaz, zugaz, amagaz, hazaz, horregaz...*

GINEN-GINAN: *kakaginen-ginan, ikazginen-ginan, hariginen-ginan, ogiginen-ginan.*

IDU: *mogidu, hornidu, sentidu, prijidu...*

KA = KE (U-I-ren atzetik): *burrake, amenazuke, mosuke, eztulke; haginke, ixilke, harrike, kуйke, ahausike.*

KAZ: *GAZ atzizkiaren plurala: zuekaz, eurakaz, txakurkaz, gurasoakaz, besteakaz...*

KERA: *albokera, okerkera, aurrekera, zeharkera, atzekera...*

KETAN: *urketan, sinesketan, zabalketan, igarketan... = ur-tzen, sinesten...*

KOTX: *bakotx, bikotx, hirukotx, laukotx, zazpikotx...*

OK: *danok, guztiok, gizakiok, begiok, ederrok...*

REAN: *idunerean, bentanarean... = idunetik... Atzizki arkaikoa.*

RO: *osoro, gozaro, argiro, barriro, astiro, geldiro, bizi-ro...*

TA = TE (U-I-ren atzetik): *hartute, sinestute, parkatute; itxite, etorrite, ikesite; dogu-te, dozu-te, deusku-te; daki-te, ein lei-te...*

TAKO-TEKO: *pentsetako, kantetako, topetako... pentsateko, kantateko, topateko...*

TAN: *iratan, egurretan, perretxikotan, behitan... = bila edo ekartzera.*

TAN-KAN = TEN-KEN: *argiten, sarriten, birriten, alditen, gorriten... gomuten, konduten, disputen... errepiken, fabriken, musiken... lupen, burruken... bisten, listen, errebisten...*

TARA: - *Okerretara, zabaletara, zeharretara, honetara, bes-tetara...*

— *Neu neutara, biok biotara, zeuk zeutara, geu geutara, eurak euretara... = neure kabuz, neuk bakarrik...*

TEA-TIE: *olgetea, betetea, koloketea... olgetie, betetie, koloketie... = olgatzea, betetzea...*

T(Z)EARREN-TEARRIK: - *jotearren, egitearren, ikustearren... ikustearrik, joatearrrik, ibiltearrik...*

TEKOA-TZEKOA: - *Joatekoa, emotekoa, hartzekoa... egin. Planta egin, simulatu.*

— *Zu zara izatekoa! Zu zagoz egotekoa! Zuk egin dozu egitekoa! Zuk hartu dozu hartzekoa!...: zu zara pieza modua, zu zagoz morroi modua!...*

TI-TATI: *hemeti, horti, etxeti, kanpoti... begietati, zeruetati...*

TSITU-TZITU: TS-TZ amaieradun zenbait hitz silaba-bakar gehi TU = TSITU- TZITU. *Baltz, putz, sats, huts, hats, hotz... + TU = baltzitu, putzitu, satsitu, hutsitu, hatsitu, hotzitu...*

TUTEA-TUTIE: *apurtutea, ostutea, lagundutea... apurtutie, ostutie, lagundutie... = apurtzea, ostea...*

TUTEKO: *onduteko, hartuteko, biztuteko... = ontzeko, hartzeko...*

TZEAKO-TZIEKO: *hartzeako, saltzeako... hartzieko, saltzieko... = hartzeko...*

TZEAN-TZIEN: *hartzean, saltzean, sartzean... hartzien, saltzien, sartzien = hartzen, saltzen...*

ZINO-SINO: *salbazino, okasino, parkazino, sesino...*

ZIÑO-SIÑO: - *salbaziño, okasiño, parkaziño, sesiño...*

ZIÑOI-SIÑOI: - *salbaziñoi, okasiñoi...*

HIZTEGIA

Hiztegi honetan bizkaierearen eremuko zenbait berba dator. Askoz gehiago dago, jakina, baina nire helburua ez da zerrenda exhaustiboa osotzea, hori amaibako lana bailitzateke. Ziur nago berba ezagun eta eguneroko asko faltako dela eta ez legoke txarto baktxari gogoratzen jakozanak apuntatzen joatea, hiztegi zehatzago eta osoagoa eukitzeko. Halan be, hemen mila eta zazpirehun berbatik gora jasotzen da eta bada zeozer.

Jasotzen diren berbetan ez dira adiera guztiak aitatzen, bizkaiereari jagokozan ezbardinak baino. Holan, esaterako, **lotu** = geratu, gelditu; **min** = mihi; **eragin** = azo-arazo, behartu... Berba horiek daukezan beste adiera komunak eta ezagunak ez dira emoten. Hemen bizkaierearen berezitasunak interesatzen jakuz. Interes hori, bertsogintzarako materialean gabizenez, alde bikotxetik begiratu dot. Alde batetik berbek eurek euki leikien garrantzitik edo ezagutzatik. Eta bestetik erriman edo beste zeozertan euki leikien interesagaitik, nahizta beharbada berez hain ezagunak edo garrantzitsuak ez izan.

A

Abade: apez, apaiz.

Abai, abao, abau, abaiko: aberaska, erleen ezti gordelekua.

Abarauts: abai hutsa, ezti bakoa.

Abaro: zuhaizpeko babesgunea, babespea, ganadua eguzkitik babestekoa.

Abarrada: oturuntza, jatordu handia.

Abazuza: txingor, kazkabar, harri, inetazi.

Abazuzi: ongailua, janarien hornigarria.

Abespelu: lanean arineketea, ahal den moduan. *Abespeluan:* presaka, zetan dabilen asko jakin barik.

Abizari: oiloei ipinten jaken guzurrezko arrautzea.

Abornada, abordada: eraso, oldarra.

Abra, abre: leku airosoa, agiria. / Airean egotea bera.

Abraize: ipar haizea.

Adabu, adabaki: oihal zulutuari josten jakon txatala.

Adapo: adar orpoa, ebakeran geratzen den morapiloa.

Adargili, adargilbera: ganadu kilikorra, ikutuz batera mogitzen dena.

Adi: begira, so. / Asmoa, intentzinoa. *Adi oneko gizona; ez daukat inorako adirik.*

Adikune: begirada.

A(d)itu: ulertu, konprenitu. / Begiratu, so egon.

Adore: kemen, papar.

Adu, au, eu: ikus atzizki zerrendea.

Adur: ahotik erioten den ttua, txistua. Inguru batzutan *adurra* eta *lerdena* bereizten dira. *Adurra* gozoa, kutuna da, ume-ena esaterako. Handienari edo higuina emoten dauenari *lerdena* deritzo.

Afrontu: haize gogorra, haizeak betean jotzen dauena.

Agilando: gabonsaria, eskean doanari emoten jakona.

Agiraka: hasarre, errita.

Ago = ao, au: ikus atzizki zerrendea.
Aharrausi: logureak eragiten dauen aho zabaltzea.
Ahausi, adausi: zaunka.
Ahozpez: ahoz behera etzanik.
Aiko: hona, horra, hara. *Aiko hemen, aiko hor-aikor, aiko han:*
 hona hemen, horra hor, hara han.
Aiko-maiko: atxaki, ezetzerako planta.
Aiko-maikoan: atxakiak ipiniz, ezetzerako arrazoi bila.
Ainen: birao, madarikapen.
Ainube: ospel, eguzkiak jotzen ez dauena.
Aita-ponteko, aitte-puntako: bateoko aitabitxi.
Aitaxe: aitagarreba. / Aitita.
Aitita, aitajaun: norbere aitaren aita.
Aitzu: ahaztu.
Aken, akan: kapar-kaparra, abereen narruko parasittoa.
Akiakula, akikulu: atxakia.
Akordatu: itzartu.
Akorde: itzarrrik. *Akorde dago:* itzarrrik dago.
Alarao, alarau: minezko, alazko oihua.
Alasoko, alazoko: egokia, ondo datorrena. / Handia, tamainu-
 koa.
Alazo: egokia. / Egokiro. *Alazo dator:* bete-betean, egoki-
 -egoki dator.
Albait: ahalik, ahalik eta.
Albate: alboko ate, atarteko atiaz bestea, albokoa.
Albo: ondo, aldamen.
Albokera: alboz. *Albokera jausi, ibili:* alborantz jausi.
Albotiko: ezkontzako aitabitxi edo amabitxi.
Aldar: aldats, leku erripena.
Aldats: aldapa, malda. *Aldasgora, aldasbehera.*
Aldendu: urrundu. / Desagertu.
Aldikada: denboraldi bat. / Gatx edo zerbaiten kolpea.
 Aldikadak dekoz, aldikadak emoten dautsoz.
Aldra: talde, mordo.

- Amai:** azkena, amaiera, akabua.
- Amama, amandre:** norbere amaren ama.
- Amaraun:** armiarma sarea.
- Amata(t)u, itzungi, iraungi:** itzali.
- Amaxe:** amaginarreba. / Amama.
- Ames:** amets. / Asmo, gogo.
- Anda:** hilkutxa, zerraldo. / Gaisoak eroateko ohetxo. *Andan eroan, andandaka eroan:* zeozer bi edo gehiagoren artean bizkarrera jaso barik eroan.
- Andari:** anda edo hilkutxa eroalea.
- Andrakila:** panpin, kopin.
- Anpor:** enbor. / Guzur handia. / Mozkorra.
- Anpulo, anpulu:** malko handia. *Negar-anpulua.* / Burbuila, bunbuiloa.
- Antza:** dirudienez.
- Apapa:** ibiltzen, pasiatzen.
- Apapuan:** ozta-ozta, justuan. *Apapuan bizi:* larri, kostata bizi.
- Apara(t)u:** parean jo, azartatu.
- Apatx:** animalien hatzazala.
- Apatz:** xalo, adeitsu. / Bigun.
- Apo:** Txarri harra, hazitarakoa. / Pertsona ondo gobernatua, itxura hori daukana.
- Apur, apur baten:** pixka, pixka batean.
- Apurka-apurka, apurkan-apurkan, apurken-apurken:** pixkanaka.
- Aputz, apotz:** jagia, astina, belaki antzekoa.
- Arat, aratean, aratin:** ahoz gora.
- Aratinik:** ahoz gora etzanda.
- Arazo-arazu:** zeregina, batez be endredoso samarra, ardurea emoten dauen beharra. *Ume txikerrak arazo handia emoten dau. Ganaduek arazu handie deko. Jaijjegune ixen arren, baserrijen beti dao arazue.*
- Arbin, armin:** estu samarra, ezin egonez dabilena. / Jenio bizikoa.
- Ardi:** kukuso, arkakuso.

Arean: Ezer, inor. / Nonbait, hainbaten: *bai arean*. Deklinatu egiten da: areanek, areani...

Arerio: etsai, kontrario.

Arin, arineketan, arin aringa, antxintxika: lasterka, korrika.

Arkal: alkar.

Armera: adakera. / Ganadu edo pertsona baten aurpegikera.

Aro: giro. *Gauaro, ibiltaro, egotaro...*

Arra: esku zabalaren neurria hatzamar lodi puntatik txikiaren puntara.

Arrabio: amorru.

Arrakada: belarritako.

Arrakala: pitzadura, arraildura.

Arramuskada, erremuskada: erneguzko, jenio txarreko keinua.

Arran, arren: joare, zintzarri.

Arren: ikus atzizki zerrendea.

Arranpalo: txorimalo. / Pertsona zaratatsua eta lotsabakoa. / Begi urtenak daukazana.

Arrapalada: abiadura handiko arineketea.

Arrast: tatarrez joatearen hotsa.

Arrasti, arrastei: arrastiri, arratsalde.

Arren: ikus atzizki zerrendea.

Artasi: guraize.

Artasiku, artazuku: morokil.

Arteak hartu ezinik: sosegatu ezinik, bere onean paratu ezinik.

Artega: urduri, egon ezinik.

Arteka-marteka: bitarteetan, astiorduetan, orain bata gero bestea.

Artez: zuzen.

Artino: artio, arte.

Artxo, axuri: bildots, arkume.

Asago: urrun.

Asaro, asero: nasai, eroso. *Erropak asaro komeni dira.*

Asaskatu: barrua hustu, esturatik nasaitu.

Asasku: asaskatzeko egintza, esturatik nasaitzea, gogo askatzea.

- Asi-orraziak, azi-orraziak:** egintzak, pertsona baten praktika. / Gorabehera, on-txarrak, poz-nahibageak.
- Askai:** animalia baten irudi, itxura. / Pertsona baten gorpuzkera.
- Asko:** Asko da, ba! Asko dok, ba!
- Aspel, azpel, asmel:** azao, sorta.
- Aspertu:** ase, asetu, nahikotu.
- Astegoien:** asteburu.
- Astegun buru-zuri:** astegun hutsa, astegun soil-soila.
- Astegun buru-zurian:** astegun soil-soilean.
- Asti:** beta, libre dagoen denbora.
- Astin:** harro, aputz.
- Astiro:** geldiro, mantso.
- Astrapala:** iskanbila, zaratots handia.
- Atarte, etarte:** atari, batez be baserri batzuk daukena.
- Aterri:** ateri.
- Ateut, ateute:** Anda, hilkutxa.
- Atoan, atoetan:** behingoan, berehala.
- Atondu:** konpondu, moldatu.
- Atsen:** atsedan. *Atsen egin:* geldialdi bat egin.
- Atxaki:** aitzaki.
- Atxaki-mitxiki:** mila modutako atxaki eta disimuluekin.
- Atxur, anpor, kakot(e), katu, lanpar:** mozkor handiaren sinonimo argotekoak. Atxurra, katua harrapatu, hik dekok anporra, urteten dauen bakotxien kakotie, lanparra daukat.
- Atzamar:** eskuko hatza.
- Atzeran:** atzerantz egiten dauena, bildurti samarra.
- Aube:** amaginarreba.
- Aume:** ahuntzaren umea, antxumea.
- Auntzerdera:** berbakera zelebrea, p kontsonantea errepikatuz lortzen dena.
- Aurki:** segur asko.
- Aurreder egin:** harrera ona egin, ondo hartu. *Gizalegeak agintzen dau kanpokoari beti aurreder egin behar jakola.*
- Aurrerantzean:** gaurtik, une honetatik aurrera.

- Aurretiaz, aurretixek, aurretixik:** aurrez, aldez aurretik.
- Aurrezean:** ugaritasun handian. *Erromeri horretara jentea aurrezean batzen da. Piper barriak aurrezean etorri ziren eta aurrezean saldu ziren.*
- Aurt, jaurt, heurt:** ganaduei itzultzeko, buelta eragiteko oihua. / Itzultzea.
- Autu:** solas, barriketa.
- Autu-mautu:** ipuinak eta pasadizoak. *Autu-mautuak, autu-mautuan.*
- Azatz:** ildo. / Adartxoekin markatzen den zatia. / Ordena, bata bestearen atzean egitea. *Azatzean eroan, egin...*
- Azo-arazo:** ikus atzizki zerrenda.
- Azpira, aizpira:** oramahai, ogia, huruna eta abar gordetzeko mahaia.
- Aztru, aaztru:** azti, igarle.

B

- Baga, bage:** barik, gabe.
- Bagako, bageko, bako:** bagea, gabea, gabekoa.
- Baino ez:** baizik ez, besterik ez.
- Baizen:** bezain. / Baino. / Baizik.
- Bala-bala:** barriren bat zabal, denen ahoan ibiltzea.
- Baldras, baldres, baldan:** ardurabako, moldagatx, itxura eska-sekoa.
- Baltzeran:** baltzuska, baltzerantz jotzen dauen kolorea.
- Banakak:** bakanak, gitxi-gitxi.
- Banan:** banaka.
- Banango:** banakako.
- Bape-bapere:** bat be, bat bere.
- Bapez-baperez:** bat be ez, bat bere ez.
- Barausi:** baraua hausi, gosaldtu.

- Barauste, barausi:** barau hauste, goizean egiten den lehenengo jatordutxoa.
- Bardingo:** bitartekoa, erdi ingurukoa. *Ez handi ez txiki, bardingoa baino.*
- Barik, bagerik:** bage, gabe. / **Baino, baizik:** *hori barik bestea: hori ez, bestea baino. Zuk ni barik nire dirua maite dozu: zuk ez nozu ni maite, nire dirua baizik. Bertsoa bota barik kantatu egin behar da: bertsoa bota ez, baina kantatu egin behar da.*
- Barraban:** barrabas, bihurri, oker.
- Barre:** irri.
- Barren:** gauza baten beheko aldea: *praka barrena, mendi barrena.* / Aditzondo lez, *izan be, noski, ezustea edo enfasia adierazoz. Bera da barren! Heuk ein dok barren!*
- Barrena:** gitxienez. *Hori barrena, mila barrena: hori gitxienez, mila gitxienez.*
- Barriren barri:** barriro, barriz.
- Barriz, barriro:** berriz. / **Barriz:** ostera.
- Basa:** lupetz, lokatz, lohi.
- Baten:** halango baten, tertzio baten, gesu baten, honenbaten, horrenbaten, harenbaten.
- Baztarrak:** oso asko, ezin gehiago, ugaritasun izugarria. *Baztarrak galdu. Baztarrak irabazi. Baztarrak bete diru.*
- Be, bere:** ere.
- Bedar:** belar.
- Begitandu:** iruditu.
- Begitantzino, begitazino:** irudipen, uste.
- Be(g)itu:** begiratu.
- Begitxindor:** begiko txindorra.
- Behar, behar egin:** lan, lan egin.
- Behargin:** langile.
- Beharrean (guztia, dana):** erdizka, ahal den moduan, justu samar.
- Beharleku:** zeregin, arazo. / Lantegi.

- Beharrizan:** premia, behar.
- Behatz, bihetz:** hankako hatza. Eskukoa *hatza* edo *hatzamarra*.
- Behingoan:** atoan, berehala.
- Behinola:** behiala, antzinako denporetan.
- Beilegi, belegi:** hori, laru.
- Bekoki:** kopeta.
- Belu:** berandu.
- Berba:** hitz.
- Berbako:** hitzeko, hitzari eusten diona.
- Berbaldi:** hitzaldi.
- Berbaldun:** berba asko egiten dauena.
- Barbaro:** berba hotsa, zer dinoen aitu barik entzuten den marmarra.
- Berbots:** berba hotsa, berbazko zaratea.
- Berebiziko:** apart, aproposko, oso egoki.
- Berariaz:** beren beregi, espreski.
- Beren beregi, berein-berein, beren-berez:** bereziki, apropos, berariaz.
- Berna:** belaunaren eta oinaren arteko hanka zatia.
- Beste, besteko:** aina, ainako, bezanbat, bezanbateko.
- Bestela-baitakoan:** disimuluan, beste gauza bat simulatuz.
- Bestelan, bestelanik:** ostantzean, bestela.
- Bez, berez:** be ez, bere ez.
- Bidar, bider:** aldiz. *Makina bat bidar, bi bider.*
- Bilin-balaunka, bilin-balan, bilin-boloka:** zilipurdika, gorputz-
-buelta osoak emonez.
- Bihor, bihurtu:** bihurra, okerra. / Gaiztoa.
- Biri:** birika.
- Birrin:** zati txiki txikia, ogi papurra, esaterako.
- Birrindu:** xehetu, zehatu, txiki-txiki egin.
- Birritan:** bitan, bi bider, bi aldiz.
- Bits:** apar. *Uren ganeko bitsetan:* poz-pozik.
- Bizardo:** bizartsu, kutsu despektiboz.
- Bizio:** hesteetako zizare.

Blisti-blasta: behin eta barriz jotzearen hotsa.
Bol-bol, pol-pol, bor-bor: irakinaren hotsa.
Boldro, boldrio, boldrozko: lodikote, trakets.
Bolo-bolo: zurrumurru bat ahoz aho dabilela.
Bon-bon: ugari gastatzearen hotsa.
Bornu, bornuan: inguru, inguruan.
Branka: untziaren aurrekaldea. *Brankatik emon:* musturrekoa emon, kontrako zartadea emon.
Brau: bat-batean agertzearen hotsa.
Burbux, burbuz: gurbitza, zuhaitz txiki bat.
Burdi: gurdi.
Burpil: gurpil. / Jit, efektu, boleari eta antzekoei emoten jakena.
Buru egin: simulatu. *Gaiso-buru, tentel-buru, listo-buru... egin.*
Buzkantz: odoleste, batez be este lodiaz egiten dena.

D

Dan, din-dan: kanpaiaren onomatopeia.
Danba, danba-danba: tiroaren hotsa.
Dandar: tatarrez eroaten den jantzi zatia. / Pertsona ardurabakoa, baldarra.
Dandarrez, dandarraz: tatarrez, herrestan.
Danga: jaustean lurra jotzearen hotsa.
Dangel, dangil, dangilo, dangolo: baldar, bertan behera dabilena.
Dar-dar: ikara hotsa.
Daun-daun: ate jotzearen hotsa.
Deabruak euki: trebetasun handia euki. *Jantzan diabruak dekoz:* dantzan oso abila da.
Dedu: ohorea, itxura ona.
Denganino: demonino, arraio.
Desak: ahalegin handiak, ezin gehiagokoak. *Desak egin.*
Deslaian: aparailua eskutik jarein, bere kontura.

- Deunge:** gaizto, zantar.
- Di-ti:** ikus atzizki zerrenda.
- Didar, dihar:** deihadar, gedar.
- Dinbi-danba:** behin eta barriz jotzearen hotsa.
- Dinbili-danbala:** jo eta jo, emon eta emon. / Kanpaiak topera jotzea.
- Dingili-dangolo:** herren. / Herrenka ibili.
- Dingiliz, dindilizka, txintxilizka:** dilindan, zintzilik.
- Do, to:** ikus atzizki zerrendea.
- Doan, duan, duban:** dohainik.
- Domun Santu, Domu Santu, Domuru Santuru:** santu guztien eguna.
- Donga:** gaizto, oker.
- Dontsu:** dohatsu, santu. / Zoriontsu. / Gogaikarri, aspergarri.
- Draga:** galga, egurrezko freno.
- Droga:** matraka, hasarre, liskar. *Etxe horretan beti dabiz zeozegaitik drogan. Hasarrie ta drogie besterik ez dekon gizon pestie.*
- Drogoso:** droga edo liskar zalea, matrakosoa.
- Dukat, duket:** antxinako txanpon bat.
- Dungulu:** morokil.
- Durditu, durdidu:** durduzatu, zorabiatuta utzi.
- Durundi, durundu:** zarata ozena, batez be oihartzuna edo erresonantzia.
- Dzanga:** murgiltzearen onomatopeikoa. **Dzanga egin:** urperatu. / **Dzanga- dzanga:** edatearen onomatopeikoa. **Dzanga-dzanga edan:** gogotsu edan. **Dzapa-dzapa, zapa-zapa:** ibilera bizkor samarreen joan, geratu barik.

E

- Ebagi, ebai:** ebaki.
- Ebali:** erabili.

- Ebatzi:** erabagi, erabaki. (Izena eta aditza).
- Edegi, idigi, edei:** ireki, zabaldu.
- Eden, edendu:** pozoin, pozoindu.
- Eder egin:** aurrekoagaitik ondo esan, koipea emon, haren ederra irabazi guran.
- Ederto:** oso ondo, ederki.
- Edonor:** nornahi.
- Edonon:** nonahi.
- Edozelan:** nolanaahi.
- Edozenbat:** zenbanahi, nahi beste.
- Egin-eginean:** justu-justuan, behar dena bera, behar den une-unean.
- Eginen, egingo:** egitekoa, egiteko falta den zeregina.
- Egotaro:** klima, egoteko haroa.
- Eguno, egundo:** egundaino, inoiz.
- Eguzkibegi:** eguzkitara emoten egotea.
- Eguzkibegitan:** eguzkitara, eguzkiak emoten dauela.
- Ei:** omen.
- Ekandu:** ohitura. / Ohitu, egokitu.
- Elai:** enara.
- Emoi:** emari, isuri. *Zauri horrek emoia dauka.*
- En:** ikus atzizki zerrenda.
- Endakatu-endekatu:** deskastatu, berezko ezaugarriak galdu.
- Endemas:** ganera, gainera.
- Ene:** harridurazko interjekzioa.
- Enpara(d)u, enpaidu:** gehienez pluralen: gainerakoak, beste guztiak.
- Enpaz:** parrean, bardinean, kito.
- Entzun-gor (egin):** ez-entzun egin, entzun ez duelakoa egin.
- Era:** egokiera, aukera, komenentzi.
- Erabagi:** ebatzi, erabaki.
- Era(g)in:** aditzakaz *arazo, behartu: jan eragin:* janazo-janarazo, jatera behartu.
- Erago, eragon:** jardun, ari izan.

- Eralgi:** eralki, iralki. / Xahutu, gastatu.
- Eraso:** esanazo, ezkutuan daukana etara. / *Mezea eraso:* mezan abadeari lagundu.
- Erdi-eginean:** erdizka eginda, erdiz-erdizean.
- Erdizean, erdiz-erdizean:** erdi-eginean, erdi eginda.
- Erdu, erduze:** zatoz, zatoze, etor zaiteze.
- Eretxi, eritxi:** iritzi. (Izena eta aditza).
- Erkin:** ahul, erdikin, osora heltzen ez dena.
- Erlabio, erlamino, erlastar:** kurumino, liztor.
- Ernegu, ernegatu:** hasarre, amorru, hasarratu.
- Erosta:** kexu, hileta, auhen.
- Erpe, erpa:** hatzapar, zenbait animaliren hatzazala.
- Erremuska:** marmarka, gogo txarrez, txarto esaka.
- Errime:** iaioa, zeozertarako jitea daukana.
- Erripa-erripe:** aldasgoran edo aldasbeheran dagoen lekua, inklinatua.
- Erro:** animalien errapeko titia.
- Erroi:** bele.
- Esames:** elemele, barriketa.
- Eskailu, kaskailu, kaskaila:** ezkailu, erreka arrain txiki bat, gozoa.
- Eskandalu:** asko baino gehiago. *Asko hamar da, hamaika eskandalue.*
- Eskatz, eskaratz:** sukalde.
- Eskegi, esegi, eskei, esei:** eseki, zintzilikatu.
- Eskeko:** eskale.
- Eskoi, eskoa, eskuma:** eskuin.
- Estramina:** kalostra edo eskilara etzunaren antzeko aska, lastoari, bedarrari eta abarri eusteko.
- Etan, aten:** ikus atzizki zerrendea.
- Etara, atara:** atera.
- Ete:** ote.
- Etxagun:** etxejaun, etxejabe.
- Etxaguntza:** norbera den etxaldea.

Ettxandera: etxandra, etxearen jabe den andrea.
Etxe-kalte: etxearentzat edo etxeakoentzat kaltegarri den pertsona.
Etzun-etzin-etxun-itxun: etzan.
Eurrez, eurrezean: ugari, ugaritasun handian.
Eutsi-etsiz: hartuizu-hartuizuz.
Eutsok-eutsoz-eutsozak: hartuik-hartuizak.
Eutson-eutsozan-eutsonaz: hartuin-hartuizan.
Ezain: itsusi, zatar.
Ezein: *zein*-en negatiboa, bat be ez.
Ez-entzun, ez-jakin, ez-ikusi... egin: ez entzuteko planteatzen egin, ez dakielakoa egin.
Ezizen-gatzizen: goitizen, izen gaizto.
Ezkino-ezketino: ezkerro.
Ezpabe, ezpabere: baizik, bestela.
Ezpaze, ezpadaze: baino, baizik.
Ezpan: ezpain.
Eztegu: eztei. / Poz edo gozamen handia. *Horrek darabil eztegua!*
Eztitan: pozik, zoriontsu. *Eztitan bizi, eztitan ibili...*
Eztitu: txertatu, mendatu.
Ezune: ezaldi, gauzea urri dagoen unea.
Ezurte: urritasunezko urtea, uzta, jenero, diru... gitxi emon dauena.

F

Fara-fara, firi-fara: mugitze suabearen hotsa. / Suster barik, zertan dabilen ez dakiela.
Firu: hari.
Frakak, prakak: galtzak.
Franku: ugari, oparo. Bizkaieraz *franko* barik *franku* esaten da. / Adjetibo lez, ugaria, eskuzabala, neurtzen ez dabilena: *pertsona frankue, etxe frankue.*

G

- Gabaseme:** gauzale, gauetz ibiltzen errimea.
- Gaiti-kaiti:** ikus atzizki zerrendea.
- Gaitio-gaitino:** ikus atzizki zerrendea.
- Galapan:** arineketan, abiada betean.
- Galapada:** arineketaldi.
- Galtzu:** gariaren zurtoin, lasto.
- Gan, ganean, ganera:** gain, gainean, gainera.
- Gandi-kandi, gandio-kandio:** ikus atzizki zerrendea.
- Ganerakoan:** bestela, hortik aparte.
- Gangar, gangor, gangur:** galdor, hegazti batzuren buru gane-koa. / Pertsona harrosko buruarina, nabarmen zalea. *Beti gangarrerian.*
- Gangel:** kankailu, handi moldagatx.
- Gangul, gangun:** pertsona patala, ustel samarra.
- Ganora:** taxu, molde, funts.
- Ganorabako:** taxugabe, funsgabe.
- Garau, garaun:** ale, bihi. / Burmuin.
- Garandu:** garaunak askatu, aletu.
- Garbai, garbatu:** damu, damutu.
- Garreanean:** halako denporara. *Urtegarreanean, astebetegarre-
nean, hamar egungarreanean:* handik urtebete, astebete,
hamar egunera.
- Gatx:** gaitz, kalte. / Zail, gaitz.
- Gatzatu:** esne gatzatua, legarra hartua.
- Gauzeztan:** ezetako ez dena. *Gizon gauzeztana hartzen daue-
nak... Hauxe herri gauzeztana!*
- Gaz:** ikus atzizki zerrendea.
- Gaztegin:** gazte kontserbatua.
- Gedar:** didar, deihadar.
- Geriza, gerizpe, kerizpe:** itzal, itzalpe.
- Gesu baten, gizi baten:** laster-laster, berehalaxe, hurrengo unean.

- Geun:** amaraun. / Begietako lausoa. / Kristaletako gandu.
- Geundu:** lausotu, gandutu.
- Ginarra:** erratz.
- Ginen-ginan:** ikus atzizki zerrendea.
- Gitxi:** gutxi.
- Gogaikarri:** aspergarri, kaparra, txaplata.
- Gogait:** gogaitasun, aspertasun.
- Gogait egin, eragin:** aspertu, asperrarazi.
- Gogaitu:** aspertu.
- Goiarin:** buruarin.
- Goien:** gorengo aldea, zerbaiten goiko aldea. *Hiriaren barren-goienak:* hiriaren beheko eta goiko aldeak.
- Gonburu:** ganezka egin dauen kopurua.
- Gomuta, gomutatu:** oroitzapen, oroitu.
- Gorantzi:** goraintzi.
- Gorpu:** gorputz hila, hilotza.
- Gorta:** korta, ikuilu.
- Gozatsu:** gozo, gustosoa. *Berba gozatsuak, janari gozatsua.* / Lurrari buruz, emonkorra.
- Gur-gur:** esteen hotsa.
- Gura, gure:** nahi.
- Guraiña, gureñe, gureiñe:** nahi beste, zenbat gura.
- Gurari:** nahikari, desio.

H

- Ha, hak, harek:** hura, hark.
- Habia:** kabi.
- Hage:** jatorritik, familitik zerbait etortzea, atabismoa, halako fatalismoa. Esaterako, umeek gurasoen zerbait txarra –edana, ganorabakotasuna...– dakarrenean, esaten da: *etxe horrek hagea dauka.*
- Hain:** halako. *Hain egunetan, hain lekutan. Hain bakoa:* dala-ko zeozer bakoa.

Hainbaten: hurrean, beharbada, kontixu.

Haize-ezkutu: haize ostea, haizetik gordeta dagoena.

Halakoa: astoa halakoa! Zantarra halakoa! Tentelak halakoak!

Halan, halango: hala, halako.

Halan-holan: zelan-halan, hala edo hola, nola-hala.

Halan da ze, holan da ze: beraz, halan ba, holan ba.

Halanik: halan.

Handika, handi-handika: askoka. *Handika erosi:* kopuru handian erosi. / *Gauzak handi-handika azaldu:* alde nagusiak hartuz, xehetasunak utzita azaldu.

Harri eta zur: guztiz harriturik, guztiz zurturik.

Harri; harriko: eskatzeko untziak garbitzeko aska; untzi horien garbiketa.

Hatan horretan: igarri barik, ezer ganorazkorik egin barik. *Eta hatan horretan gaba egin jakun.*

Hatan be-hatan bere: bai gero, bai noski, besterik ez geunke behar.

Hats: kirats. *Usaina ona dok, hatsa dok txarra.*

Hatsitu: hatsez bete, kirastu, usain txarra hartu. / Argotean, zerbaitez exajeratuki bete. *Diruz hatsituta dago:* alde guztietatik diruz beteta dago. *Jendez, militarrez, kotxez, euliz, turistaz... hatsituta:* bete beterik, ganezka.

Hegaz: hegan, airean.

Herejiak egin: egundokoak, normalez gorako gauzak egin. *Bilboko jaietan herejiek in genduzen.*

Hileta: kexu berba, beti gauza txarrak kontatzen diharduena-rena.

Hileta jo: alde okerrak edo penazkoak kontatu.

Hiltamu: hilzoria, agonia.

Hiruzaku: bi biren aurka dabizela, kartetan esaterako, batek kontrarioekin bat egitea, laugarrena salduta utzirik. *Hiruzaku egin eusten eta baztarrak galdu nebazan.* / Tranpa, traizino.

Hoba: hobe.

Hobari: sal-erosian edo trukean gai baten alde gehitzen dena, hobeia izategaitik tokatzen jakona.

Hobeto: hobeki.

Hogerleko: hogei errealeko, bost pezetako.

Holan, holanik: honela, horrela.

Holangoan, holakoan: holako uneetan, horrelako trantzeetan.

Holangorik, holakorik: harridura modua. Hau da hau!
Sinesteko be!

Honan: honelan.

Honetan: beraz, hau holan dela.

Hordi, horditu: mozkor, mozkortu.

Horma: paret.

Horraitino-horregatino: horratik, horraitio, halan be. Interjekzioetan batez be.

Horraitio-horregatio: horraitino.

Horratik: horraitio.

Horretan: beraz, hori horrela dela.

Hozkirri: hotz puntuan dagoena, freskoa.

Hun: muin, zerbaiten barruko gaia, hazurrena adibidez.

Huri: hiri.

Huriko: hiriko. Etxekoa ez den umea, adoptatzen dena.

Hur, hurrean: hurbil, gertu.

Hurrean: hainbaten, beharbada.

Hurrik emon: antzik emon, zerbaitera inguratu.

Hurun: hirin.

I

Ibili: jardun, ari izan. *Dantzan dabil:* dantzan dihardu. *Ikasten nebilenean:* ikasten ari nintzenean.

Ida, ira: basoko landare bat, azpigarria egiteko balio dauena.

Idoro: topatu, aurkitu.

Idu: ikus atzizki zerrendea.

Idul; idulez: iruntzia, atzeko aldea; iruntzietara. *Prakak idulez, iduleztara.*

Idun: sama, lepo.

Igurdi, igurtzi: marruskatu.

Ijui: irrintzi, zantzo.

Ijuti: jauzi, salto bizkorra, pozezkoa sarritan.

Ikera: ikara.

Iko: piku, biku.

Ikol, ikoldu: tximur, zimel, batua. *Sabela ikol:* sabela hutsik, kizkurturik.

Imini, ifini: ipini.

Inausi, inosi, inusi: zuhaitzari adarrak moztu.

Indarga, indarka: makal, indarbako.

Indriska: zaparrada handia, eurijasa.

Inetazi: txingor, kazkabar.

Inkatu-inkau-inkeu: itsatsi, atxiki.

Inkesa: auhen, intziri, zinkuri.

Inoz: inoiz.

Irabiatu: likidoei eragin, nahastu.

Irabio: irabiatzeko egintza. / Urduritasuna.

Irago, igaro: iragan.

Irako, idako: iragoko, igaro den. *Irako astebetean, idako hoge*
urtean: joan den astebetean, iragan hoge urtean.

Irribarre: irripar.

Iretargi, itargi, idergi: ilargi.

Irritu: larritu, artega jarri. / Ernegatu, armindu.

Iruntz, inontz: ihintz.

Iruntzi: itzulia, atzeko aldea. *Prakak iruntzietara jantzi:* iduleztara.

Iskilimin, iskilmin: berbotsa, berba ugaria eta nahastua. / Txalina, barritsua.

Itaun, itauna, itaune, itaundu: galdera, galdetu.

Itzal, itzel: oso on, bikain, aparteko.

Itzartu: ernatu, esnatu.
Itzebagi: lurrean edo azalean egiten den arrakala.
Itzuli: irauli.
Itzungi: amatatu, itzali.
Izango: izango dena, etorkizuna.
Izara: maindire, mihise.
Izeko: izeba.
Izio, iziotu, ixotu, ixetu: piztu, izeki.
Izki: zer txikia, apurra, arina. *Afari izkia:* afari arin-arina.
Izpi, ispi: suge, erle eta abarren mihiztoa.

J

Jadetsi: jaritsi, lortu, erdietsi.
Jagi: jaiki. / Adjetibo lez, airoso, pertsona nahiz leku. / Har-
tzitu, oreak legamia hartu.
Jagon, jagon: zaindu, begiratu.
Jagole, jagola: zaintzaile.
Jaiki: pilotak lurra jotzean egiten dauen jauzia, botea.
Jaiton: jagia, kanpetxanoa.
Jakan, jangar, jakar: gitxi jaten dauena, *jatun*-en alderantzia.
Jake: jaka.
Jakinaren ganean: jakinean, jakitun egonik.
Jakitun, jakituri: jakintsu, jakinduria.
Jakitun egon, ipini: jakinean, jakinaren ganean egon, ipini.
Jantxakur: non zer harrapatuko dabilena edo inoren lepotik
bizi dena.
Jantza: dantza. Bizkaierarik gehienez ez da *dantza* esaten,
yantza, jantza edo *jjantza* baino.
Jaramon, jamon: ardura, arreta, kargu, kasu.
Jaretxi, jaritxi: lortu, eskuratu, erdietsi.
Jas: joera. / Enda, kasta. / Ganora, trebetasuna. / Itxura, grazia.
Jau-jau: zaunka gogorra, txakur handiarena.

Jaurti, jaurtigi, jaurtin: bota, egotzi, aurtiki.

Jausi: erori.

Jesarri, jasarri: eseri.

Jit: tankera, joera. / Bizioa, ez moralki, materialki baino.

Sokak edo metalak, esaterako, okertzera hartutako bizioa.

Justuri: trumoi.

Juzgu, juzku: eritxi, uste.

K

Kabu: ekimen, erabagi. *Neure, zeure, bere... kabuz:* neure... kontura, neure ekimenez, neure oldez.

Kadera: hanka, zango.

Kaixio, kaisio: kaixo.

Kako: untze, koska. *Hor dago kakoa, horixe da kakoa:* hor dago koska, horixe da auzia.

Kanpo-eder: etxean ohi dauen baino itxura hobea kanpoan erakusten ahalegintzen dena.

Kapats, kapatxa, kapax, kapaixa: artaburuaren orria. Horregaz egindako tabakorria. Analogiaz tabako merkea.

Kaputs, kapustu, kaputs egin: jokoan diru barik, gorri gelditu.

Karpan: otzara, bendejarako saski azal samarra.

Karu: garesti, kario.

Kasket, kazkar: burezur, burua bera.

Kasketaldi: bat bateko buruera, fantasia.

Katigatu, katiatu: lotu, estekatu, gatibu egin.

Kausino: jaramon, arreta. *Kausinorik bez:* zer danik bez.

Kautan: kolkoan, baitan. *Bere kautan, norbere kautan:* norbere kolkoan, norbere pentsamentuan.

Kaz: ikus atzizki zerrendea.

Keko-meko: zalantzan, zer egin ez dakiela.

Kera: ikus atzizki zerrendea.

Kerexa, kerixa: gerezi.

- Ketan:** ikus atzizki zerrendea.
- Keto:** hil samarra, motela, ezetan ausartzen ez dena.
- Kikil, kikildu:** adore gitxikoa, geldoa, errez atzera egitekoa.
- Kili-kili:** azkura barrerazlea, kilima.
- Kili-kolo:** loka, osasun urriaren hotsa.
- Kili-mala:** osasunez edo bestela erdizka, makal, kili-kolo.
- Kilimatraka:** ezbaian, ziurtasun barik.
- Kipur-kipurra:** esnegain, esnearen bitsa.
- Kirikio, kirikino, kirikolatz:** triku, sagarroi.
- Kitu, kittu:** kito, parrean.
- Koinatu-koinatak:** andrearen edo gizonaren neba-arrebak.
- Koipezto:** koipez betea, ugertsu. / Koipe emale gogaikarria.
- Koitadu-edu, koitau-eu:** errukarri, gizajo.
- Koiu, koxu, kohidu:** harrapatu, hatzeman.
- Kokoa euki, kokoak jota egon:** bizkortasunik eza, hiltasuna euki, kokorrotuta egon.
- Kokolo:** malezi bako, xalo.
- Kokorro; kokorrotu:** konorte makala, sorra; sortu.
- Kokot:** lepo edo samearen atzekaldea, garondo azpia.
- Kolko:** euspen, pazientzia.
- Koltza:** ganbara antzeko gunea baserrietan.
- Konort, konorte:** korde.
- Kontixu-kontuxu:** nonbait, hurrean... segurrenik, ziur asko...
Esanahi oso zehatzik bako partikula kolokiala. *Bai kontixu, ez kontixu; etorriko da kontuxu, ez dau egingo kontuxu.*
- Kopau:** mokadu, ahamen.
- Kopeta:** buruko ulez egiten den txorta luzea.
- Kopin:** andrakila, panpin.
- Kopla:** atxaki, engainu, kexa. *Ume honek koplje besterik ez deko. Ez pentsa kopletan nabilenik gero! Koplak itxi eta hasi gaitezen ganoraz berbetan.*
- Koploso:** kopla asko daukana. *Gizon koplosoagorik! Hau da neska koplosie topau dodana!*

Korrok, korrosk (egin): urdailetik ahorako hots kolpea, korroskadea.

Korta: ikuilu, tegi.

Kotx: ikus atzizki zerrendea.

Koxo: herren.

Kristinau-eu: girstino, kristau.

Kui, kubi; kuika, kubika: ezkutaturik dagoen umeak esaten dauena; ezkutuka, jolas horretara jolasten.

Kukulumixo, kukurumixo, kukulumuxu, kukurumitxu, kukulumutxu: kokoriko.

Kurumino, kulemino, kurubio: erlabio, liztor.

Kuma: sehaska.

Kurtze, kurutze: gurutze.

Kuso: txorimalo, txoriak uxatzeko panpina.

L

Laban: labain, lerrakor, irristakor.

Labaneperdi: koipe emolea, elezuria.

Laga: utzi.

Lagun: pertsona. *Txakurraren zaunkan igertzen da laguna ala animalia dan.*

Lain: beste, aina.

Lakar: adar baten tokorra, adabegia. / Latza, zakarra.

Landa: zelai, pentze, belaze.

Landur-lanbur, lanpar: euritxoa, euri zehea. / *Lanpar:* mozkorra. *Lanpartu:* mozkortu.

Lango, lako: bezalako.

Lantxe-letxe-legetxe: lez, bezalaxe.

Lantxerik-letxerik: letxe, bezalaxe. / *Aditzagaz:* *etxean sartu zan lantxerik:* etxean sartuz batera.

Lantzar: denbora batean erein gabe uzten den soroa.

Lantzean: noizean, tarteka. *Lantzean bat:* noizean bat, aldian bat.

Lantzean-lantzean: noizik noizera.

Lapiko: eltze. *Berba-lapiko, guzur-lapiko, negar-lapiko...*: horietatik asko egiten dauen edo daukanagaitik esaten dena.

Laprast (egin): laban, irrist.

Lar, larre(g)i: gehiegi.

Larako: zuloan sartzeko pieza zilindrikoa, burtardatzari eta antzeko piezei eustekoa. / Arrazoia, kaka. *Zelako zuloa, halako larakoa.*

Laru: hori, beilegi.

Laskitu, lauskitu: lorrindu, hondatu.

Lau, leu, laun, leun: lixu, gorabeherarik bakoa. / Lautada.

Leba: ardura. Batez be ezezkoetan. *Ez deko lebarik:* ez dautso ardura.

Legar, liar: gatzagi, animaliek urdailean daukena eta esnea gatzatzeko balio dauena. / Patxada, lasaitasun. / *Horrek ez deko mihinean legarrik:* edozer esaten dau, mihin zorrotza dauka.

Legez, lez: bezala.

Lei: izotz.

Leitu: izoztu.

Leiza, leza: leize, leze.

Lekutan: oso urrin. *Lekutako amarenean!*

Lepo: bizkar.

Lepobete (emon, hartu...): zerbaitetik asko hartu edo emon, gehienez gauza txarrak, egurra, zorrak eta holakoak.

Lerrak, lerrenak: ahalegin handiak, azkenerainokoak. *Lerrak-lerrenak egin genduzen.*

Letxe, letxerik: lez, legetxe, bardin bardin.

Likin: lingirda, lika. / Itsaskor, likatsu.

Likindu: likin, itsaskor bihurtu.

Loba: iloba.

Lohi: zikin.

Lohitu: zikindu.

Loka: koloka, ondo lotuta ez dagoena. / Oiloloka, buru-loka...

Lokatu: nasaitu, deslotu, kolokatu.

Lor: garraio. Auzo-lorreatan, harri-lorra, zur-lorra... / Nahiba-gea, desgustoa. *Zorra lorra; zor da lor; zugaz badaukat nik lorra...*

Lorrin: euriak eragiten dauen azaro likina, lehortu arte itxoin beharrekoa. / Lardaska, ganora barik egindako gauzea.

Lorrintu: gauzeztandu, alperrik galdu, hondatu.

Lotsabaga: lotsabako.

Lotsari: lotsakizun, lotsatzeko motibo.

Lotsor: lotsati, lotsatzeko joera daukana.

Lotu: gelditu, geratu.

Luki: azeri.

Lukurreri: mailebuz emondako dirutik gehiegizko korritua etaraten dauena.

Lukur, lukurreru: lukurreriz jokutzen dauena. / Zeken, emon urriko.

Luperia: lubizi, lurjauzi. / Lur biguna, gorpila errez lurperatzen dena.

Lupetz, lupetza: basa, lokatz, lohi.

Lupu: beldar. / Pozoina. *Inpernuko lupue baino txarragoa. / Gaiztoa, barru txarreko. Zelan izan leike hain pertsona lupua?*

Lurrun: lurrin, gandu.

Lurrundu: lurrindu, gandutu.

M

Madari: udare, txermen.

Mahaibe (geratu, egin, itxi...): ezer barik, in albis. Jatordua amaitutakoan heltzen denari gertatzen jakona. *Zuretzat mahaibe:* zuretzat ezebez.

Mailuki, mailubi: marrubi.

- Maiz, maiztu:** erabiliak arindua, gastatua. *Soineko maiza.*
Pertsona maiza.
- Makal:** ahul.
- Makar:** argal makala, itxura urrikoa.
- Makatz:** madari txertatu bakoa. / Zerbait basa, landu bakoa, berez datorren modukoa.
- Makera:** txarriama. / Zikiratu bako txarriemea.
- Malats:** sendo gordina. / Emonkor, ugari. Lurra, esaterako. / Pertsonetan, atsegin, adeikor, lagunkor.
- Malmutz, mamutz:** maltzur, tranposo.
- Maluta:** edur garaua, edur bikorra. / Artaburua batzen dauen hosto luzea.
- Mamala:** tentel, andrazkoari aplikatua.
- Mamin:** ugari eta on. *Euri mamina, berba mamina, borondate mamina...*
- Mando:** itzel, handi. *Gizon mandoa:* oso gizon handia.
- Manzin, mantzin:** suster bako pertsona, ganora bakoa.
- Maratz:** fin, behargin, gogoz eta ganoraz lan egiten dauena.
- Maraz:** zimeldua, higatua, maiztua.
- Mardo:** mardula edo sendoa, betea.
- Margul:** kolorea galdu dauena.
- Marot:** gizonetzko ederra, lerdena.
- Marmar:** txarto esate, barriketa. / Marmarrean, marmarka. / Katuaren hotsa.
- Marro:** zerbaiten barruko hutsunea, barrutik huts dagoena, haretx marroa esaterako.
- Marro egin:** zapuztu, engainatu.
- Maskal:** makal, argal. / Maraz, maiztua, joana.
- Matxar:** zital, grina txarreko.
- Mausta-mausta, mauta-mauta, musta-musta:** jatearen onomatopeikoa. *Mausta- mausta jan:* gogotsu jan.
- Mazal, masal:** pertsona noblea, adeikorra, jenio gozokoa.
- Mazkara:** lotsabage, ausart, ziniko.

- Mehatz, mihetz:** bakan, zarratua edo trinkoa ez dena. *Ule mehatza, pinadi mehatza. Mehaztu-miheztu:* mehatz ipini.
- Meko:** erkin, makal.
- Mendu, mentu:** txerto.
- Menda(t)u, menta(t)u:** mendua sartu, txertatu.
- Menus:** hutsa, ezerez samarra, gauza eskasa. *Menustzat nauka.*
- Merkatari:** erosle.
- Miaztu, mizkatu:** mihia pasatu.
- Min:** mihi.
- Minpeko:** *mihia*ren azpiko loturatxoa. *Minpekorik ez euki:* mihian ulerik ez euki.
- Mirriz, mirrin:** mardula ez dena, erkin, argal.
- Mizke, mizkin:** edozer jaten ez dauena, beti zerbait barriaren bila dabilena.
- Mokil:** sokil, mokor, lurrezko harria lakoa.
- Mokots:** paskoetan amabitxik besoetakoari opatzen dautson opil berezia, erdian arrautzea eta lukainka daukana. / Oparia, erregalu kutuna.
- Molot, molokot, morkolot:** porrot, pot.
- Moltso:** harri inguruak garbitzeko trapua. *Ahoan moltsoa sartzea merezidu dau.*
- Monjor, monjorrada:** etxe, teilatu eta abarren amaiera ospatzeko egiten den jatordua, beharginei emoten jakena.
- Mormor:** marmar, marmarrean.
- Morro:** tipo, elementu. *Hi haz hi morroi modue! Han agertu zen badaezpadako morroi bat eta...*
- Morrosko, morroskana:** mutil galanta, neska mardoa.
- Mosu:** mustur. Oro har, arpegia. / Laztan, musu.
- Mosuger:** murgilean, urpetik uger, igeri.
- Motz:** itsusi, ezain.
- Mozolo, mozoilo:** gaueko txori bat. / Tentela, tontotik gorakoa.

- Mukul, mokol:** jausia, makaldua, indargea. Gorputzaldi mukula. Gogo mukuldu.
- Mukuldu:** mukul bihurtu.
- Mukur:** anporraren, enborraren behealdea. / Surtara botatzen den edozein enbor zati handi.
- Mulu-mulu:** marmarioaren onomatopeikoa.
- Murrusa, morros:** behi orroa, marruma.
- Murt, mut:** murtik bez, mutik bez: barbarik bez, txistadarik bez.
- Muskil:** sagar, madari eta antzekoen erdiko partea, jaten ez dena. / Pertsona edo gauza ezereza.
- Mustur:** mutur.
- Mutil:** trebe, argi, batez be esaldi exklamatiboetan. Mutila jarri zen ba! Mutila da behar ez direnak esaten.
- Mutildu, muskildu:** moztu, bipildu, lumatu, dena kendu.
- Mutxikin, motxikin:** muskil. / Hondakina, zerbaiten azken zatia. *Zigarro mutxikina.*

N

- Nabar:** kolore bat baino gehiago daukana.
- Nagiak etara:** tiragaleak atera, sagaitu.
- Nahinoz, nahinoiz:** noiznahi, edonoiz.
- Nahinon:** edonon, nonahi.
- Nahinor:** edonor, nornahi.
- Narraz:** tatarrez, arrastan.
- Narru:** larru, animalien azala.
- Nasai, nasaitasun, nasaitu:** estua ez dena, zabala. *Praka nasaiak, bizimodu nasaia. Kontzientzia nasaia.*
- Neba:** senide artean neskarentzat mutila, arrebaren alderantzizkoa.
- Noizik behinean:** noizik behin, lantzean behin.
- Nonon:** non edo non, nonbait.
- Nonor:** nor edo nor, norbait.

Nonoz, nonoiz: noiz edo noiz, noizbait.

Nonzebarri: barri bila, esames bila. *Hori beti dabil nonzebarri.* / Pertsona esames zalea, dena jakin gurakoa.

Noz: noiz.

No(i)zbaiten: nozbait, nonoiz.

Nonbaiten-nunbaiten: nonon, nonbait.

O

Obatu, oratu, ebatu: heldu, atxeki.

Odoleste, odoloste: odolki.

Oinaztu, oinaztarri: tximista, justuri.

Ok: ikus atzizki zerrendea.

Okan, okaran: aran.

Okela: jaten den haragia.

Okelu, okoilu: bazter, zoko.

Oker: gaizto, bihurri.

Okondo, otondo, otzur: ogi apurra, ogi zati txikia.

Okotz: kokots.

Olga(d)u: jolastu.

Olgeta-olgura; olgetari: jolas, dibertsio; jostari.

Olgetan: jolasean. / Txantxetan.

Ondino, oraindino, oraingino, oindino, oraindio, oindio, oindo: oraino, oraindik.

Ondinokarren, oindiokarren, oindokarren: ondino, oraindio.

Ondo: zer praka eta zer praka ondo! Zer Bilbo eta zer Bilbo ondo!

Ondorik: atzetik, jarraitzen.

Opa, opatu: gura izan, desiatu. / Eskaini.

Opil: on-ona, malezi bakoa. *Artopil:* gauza bera, baina kokolo kutsuz.

Orainen: orin, azaleko orban bat.

Oratu: heldu, atxiki.

- Orban:** lohi, zikindura. / Orbain, ebatondo, zauri batek izten dauen seinalea.
- Orio:** olio.
- Orpo:** landareen oinaldea. / Giza oinaren atzealdea.
- Orri:** hosto.
- Orro, orru:** lehoi eta antzeko animalien marruma. / Oihu handia.
- Ortozik:** oin hutsik.
- Ortu:** baratz.
- Ortuari:** barazki.
- Ortusantu:** kanposantu, hilerri.
- Oskol:** azal, krosko.
- Osatu:** sendatu, gaisotasuna kendu.
- Oste:** atze, beste aldea. / Ondorio. / Ostean: ondoren. / Zer eskola eta zer eskola oste! Zer bisita eta zer bisita oste!
- Ostean, ostantzean, osterantzean:** bestela.
- Ostendu:** ostean paratu, ezkutatu.
- Ostera:** barriz, barriro. / Joanetorri, jira.
- Otsein:** morroi, zerbitzari.
- Otu:** bururatu, gogora etorri.
- Otzara:** saski azala, otarre mota bat.
- Ozpel:** oinetako hazkordina.

P

- Palatu, paratu:** lurrez egindako hesia.
- Pantaloiak:** kuleroak.
- Papao:** lelo, tentel, gradu handiagoan.
- Papar:** bular aldea.
- Papartsu:** kementsu, bulartsu.
- Paraje:** hur, hurbil. *Asago eta paraje:* urrun eta hur.
- Par egin:** jokoan ez irabazi ez galdu. *Bost irabazi sei galdu, hori ez da parra.*

Paratu, parau-eu: jarri, kokatu. *Parau hor:* jarri hor. *Txarto pa-reu nintzen.*

Parra-parra: ugari, eurrez.

Patal: geldo, ibilera moteleko. / Erdi gaiso, makal samar dagoena.

Patari: animalia, piztia.

Patsetan, bitsetan (izerdi-): izerdi maminean, ugarian.

Pentzutan, pentzuan, pentzudan, pentzura: arabera, gorabeheran.

Pernil: xingar, urdaiazpi.

Pertxeta, pertxenta: dotore kastakoa, apaintzen dakiena.

Peste: zantar, zital. *Maisu peste batek zenbat sufriduazo leiken. Hau da haixe pestie dabilena. Aldekozu hortik, pestiorrek?*

Pestekeri: zantarkeri, deabrukeri.

Pirri: ziztrin, zirin.

Pirri-pirri: beherazkoa. / Beherazkoaren hotsa.

Pitean-pitean: sarritan, noiznahi.

Piti, pitin: apur, gitxi. *Pitike pitike, pitinka pitinka:* apurka apurka.

Pitipin, txuzpin: txakolin edo sagardao apala, ur asko daukana.

Pizta: bekar, begiko makar.

Popa: untziaren atzekaldea. / Eperdi. *Popatik emon:* atzetik emon.

Porlixo: pertsona buruarin gauzeztana.

Porru: zer azterketa eta zer porru! Zer liburu eta zer porru!

Postura: apustu, joko.

Potiz: txongil, potin.

Potxi: lurrean egiten den zuloa, hazia ereiteko edo landarea sartzeko.

Potxingo: potzu txikia.

Potxua: andrazkoari deitzeko era kolokiala.

Pozarren: oso pozik.

Prakerre: liskarti, hasarrekor.

Premina: premia, beharrian.

Proba: dema, abereekin egiten den harri arrastea.

Puntzet: zezenak hiltzeko ezpatea. / Puntzoia, altzairuzko tresna punta- zorrotza, zuloak egiteko.

Puxiga, puxika: maskuri, txiza pilatzeko organoa.

R

Rean: ikus atzizki zerrendea.

Ro: ikus atzizki zerrendea.

S

Sai: putre.

Sabai: mandio, lastategi.

Sakan: sakatuz, presinoa eginez.

Sakatu: bultz egin, presionatu. Datiboaz: botoiari sakatu. / *Ederra sakatu:* ziri handia sartu, tranpa handia egin.

Sama: lepo, idun.

Sari: aditzekaz zeozetako merezi izatea: joan sari, itxaron sari, hasi sari, ikusi sari... *Asunto horrek ez dauka eragin saririk:* ez dau eragiterik, ekiterik merezi. *Jai eskasak, joan saririk be ez daukenak:* joaterik be ordaintzen ez dabenak, merezi ez dabenak.

Sasi-eskola: eskolara huts egietara, piper egitea.

Saskar: saskel, zikin. / Tentel.

Sastar: hondakin. *Agure sastarra.*

Saskel, saskil: ugerdo, zarpail, ordenarik ez garbitasunik ez daukana.

Sats: simaur. *Satsa lez:* ugari, erruz. *Dirua satsa lez deko:* dirua erruz, nahi baino gehiago dauka.

Sein: ume. *Seintxo:* umetxo.

Seintzain: sein-jagole, umezain.

Sekulan, sekularean, sekularioan: egundo, inoiz.

Senper, senperren, senperthen: ahalegin handia, gehiago ezin-
nekoa. *Senperrek, senperrenak egin.* / *Senperra:* eza, mise-
ria, gorritasuna, gosea. *Hau da senperra etorri jakuna!*

Senide: ahaide.

Senitarte: senideen, ahaideen moltzoa.

Siku: lehor, idor.

Singil, single: makal, sendotasun gitxiko, hauskor.

Sokorru: orroe, marru, urruma.

Sor: motel, gogo hileko, gorputzez astun eta baldar.

Sor eta lor: harri eta zur, guztiz harriturik.

– Barre, irribarre, abre.

RRI: – Jezarri, nonzebarri, orri, gogaikarri, barriren barri, pirri,
pirri-pirri, aterri, harri, hozkirri, tripazorri, urregorri.

RRO: – Erro, marro, zaparro, kokorro, boldro, zerro, zirri-
zorro.

RRU: – Sokorru, narru, zurru eta purru, porru, orro-orru, txu-
rru, txurru-txurru, zurru-zurru.

AS-AZ: – Daukadaz, daroadaz, dakardaz, zaukadaz, zaroa-
daz, zakardaz, gakarz... dauadaz, dautsadaz...

– Daukedaz, dautsedaz, dautzuedaz... daikedaz, zaike-
daz... zindukedaz...

– Dakidaz, darabildaz, litzakidaz, leuskidaz, heunskidaz.

– Bekidaz, zakidaz... daitekidaz, zaitekidaz... leitekidaz,
zeintekidaz...

– Dodaz, dautsodaz, daroaz.

– Jatordaz, jagodaz.

– Dauaz, baneuaz... dautzudaz, dakartzudaz, dinotzudaz,
damotzudaz... bazindudaz... Eutsonaz (hartuizan).

– Aurretiaz, hegaz, tarras, berariaz, endemas, enpaz,
narras, tarras, baldras, jas, kapax, maraz.

KAZ-TAZ: – Da(u)kaz, daka(r)z, jataz, daustaz, baleustaz, bazeunstaz, balitzataz... jabiltaz... jatortaz... dotaz, dekotaz... dautzutaz...

– GAZ: zugaz, amagaz, nigaz, umeagaz, txakurregaz...

– KAZ: zuekaz, eurekaz, danakaz, umeekaz, txakurrekaz...

ES-EZ: – Dabez, balebez.

– Dakiez, daikiez, zeinkiez, leikiez... daitekiez, zaitekiez, geintekiez, leitekiez... badagien, bazagiez... darabilez, zarabilez...

– Daroez, garoez, baleroez, beroez, dinoez... dautsoez, baleutsoez...

– Dauskuez, dautzuez, dituez, gaituez... baleuskuez, bageuntzuez... leuskiguez, zeunskiguez, geunskizuez, leuskizuez... baginduez, bazinduez... dozuez, daukazuez, daroazuez, dauskuzuez...

– Bez-berez (be ez, bere ez), esames, lez-legez, tatarrez, dandarrez, trabes, ames, baldres, idulez, toles, beren- berez.

KEZ-TEZ: – Jatez, daustez, baleustez... daukez... neukez, leu- kez, geunkez, zeunkez... daitekez, zaitkez, geintekiz, zeintekiz, leitekiz... beitez... dotez, damostez, dinostez... dekotez... gindukez, zindukez...

– Artez, ahozpez, topez (egin), bapez.

RREZ: – Dakarrez, gakarrez, zakarrez, balekarrez, bagindeka- rrez...

– Tatarrez, eurrez.

IS-IZ: – Gabiz, zabiz, dabiz, darabiz, dakiz, balerabiz...

– Bebiz, bagenbiz, balebiz, begiz, balegiz, balediz, bekiz, banekiz, balekiz... Eutsiz (hartuizuz).

– Dingiliz, barriz, mirriz, potiz.

AIZ-EIZ: – Beiz, leiz, baneiz, baleiz, maiz, nonoiz, nahinoiz.

OS-OZ: – Gagoz, zagoz, dagoz... jakoz, zatxakoz, balitzakoz, bagintzakoz... joakoz, g(ai)oakoz... daroatsoz, dakartsoz...

– Begoz, balegoz, bazengoz, bagengoz... dekoz...

– Neuskioz, geunskioz... neikioz, geinkioz... gaitekioz, daitekioz... geintekioz, zeintekioz... gengokioz, legokioz, zengokioz... gentorkioz, letorkioz... litzakioz, gintzakioz... badagioz... bazakioz, bagazkioz, bekioz... baneioz, baleioz...

– Dagokoz, datorkoz, balegokoz, baletorkoz... damotsoz, dinotsoz... Eutsoz (hartuizak).

– Dautsoz, daukoz, gaukoz, baleukoz, beukoz.

– Noz, inoz, nonoz, nahinoz.

US-UZ: – Dauz, baneuz, baleuz.

– Jakuz, jatzuz, zatxakuz, balitzakuz... daroaguz, daukaguz, zaroaguz, zaukaguz... daukazuz, gaukazuz, daroazuz... joakuz, zoakuz... e(g)idazuz, emoidazuz...

– Bagenduz, bazenduz, dautseguz, dautsezuz, daikeguz, daikezuz...

– Dakiguz, badakiguz, zakiguz, litzakiguz, leitekiguz, letorkiguz, dariguz... dakizuz, badakizuz, litzakizuz, leiteki-zuz, letorkizuz, darizuz... dabiltzuz, gabiltzuz, dabilkuz, zabilkuz... darabilguz, zarabilguz, darabilzuz... - Doguz, dautsoguz, dinoguz, daukoguz... daikioguz, badagioguz... datorkuz, dagokuz... dozuz, dautsozuz, dinozuz, dekozuz... daikiozuz, badagiozuz... datortzuz, dagotzuz...

– Dauskuz, baleuskuz, bazeunskuz... dautzuz, beneutzuz, baleutzuz, bageuntzuz... dautzuguz, dauskuzuz...

– Menus, kabuz, burbuz-burbux.

SA-ZA: – Abazuza, geriza, inkesa, kerexa-kerixa, basa, murrusa, kapaixa, leiza-leza, usa.

– E = A: oinaza, leza...

SE-ZE: – Zakidaze, zaiataze, bazindudaze, bazintzadaze, bazagidaze, zoaze, bazinoaze, zaroadaze, zakardaze, zatordaze, zabilidaze...

– Ze, halan da ze, holan da ze, amaxe, aitaxe, ezpaze, ezpadaze, abraize.

– Zaiteze, zaitekeze, zeinkeze, zaiakeze, zaikeze, zeinkeze, zindukeze, zindeikeze, bazindueze...

– Zabize, zarabilze, bazenbize.

– Zagoze, bazengoze, zatoze, bazentoeze, zaiakoze, zakioze, bazakioze...

– Erduze, bazenduze, zaiakuze, zakiguze, zatorkuze, zabilkuze...

– A = E: – dizdize, pendize, krisise, txasise... tifuse, autobuse...

– gerize, palize, dibise... gauze, zuze, pause...

SI-ZI: – Aharrausi, artasi, inausi-inosi-inusi, inetazi, jausi, ezikus (egin), barausi, abazuzi, ahausi-adausi, azi- orrazi/asi-orrazi, urgazi.

SO-ZO: – Arazo, eraso, koploso, drogoso, koxo, porlixo, txorikuso, ugaraxo, ugeraxo, alazo, kuso, txuzo-txuxo, uxo.

– AZO-ARAZO: galazo-galarazo, janazo-janarazo, etarazo- etararazo, biztuazo-biztuarazo...

SU-ZU: – Daustazu, dautsazu, daroazu, naroazu, dakarstazu, dinostazu, e(g)idazu, emoidazu, badagidazu...

– Dautsezu, e(g)iezu, emoiezu, badagiezu, daikezu...

– E(g)izu, emoizu, jakizu... badagizu... neuskizu, leuskizu... daikizu, leikizu, neikizu... daitekizu, leitekizu... nentorkizu, letorkizu, legokizu...

– Dozu, nozu, dautsozu... e(g)iozu, badagiozu... dinozu, damozu... emoiozu, esaiozu, eroaiozu... daikiozu...

– Dauskuzu... E(g)iguzu, esaiguzu, emoiguzu... dakarskuzu, dinoskuzu, damoskuzu... daikiguzu...

– Koxu, mosu, arazu, truxu-truxu, uzu-uxu, kontuxu-kontixu, tirozu.

ATZ-ATX: – Baltz, hats, sats, hatx, gatx, apatx, behatz, buzkantz, eskatz, eskaratz, makatz, apatz, kirikolatz, azatz, kapats, malats, maratz, mehatz, zehatz, sorbatz, zakatz.

– GATX: moldagatz, gozagatz, aldagatz... eskergatz, hezgatx, ulergatz... zorigatz, mogigatz... etorgatz, ezkongatz... makurgatz, izugatz...

ETS-ETZ: – Lupetz, bihetz, zihetz, mihetz.

ITS-ITZ: – Bits, egu(b)akoitz.

OTZ-OTX: – KOTX: bakotx, bikotx, hirukotx, hamarkotx...

– Inontz, mokots, motz, zikotz, okotz, tapot-zapotz, berbots.

UTS-UTZ: – Iruntz, zurtz, aputz, zaputz, zurtz (egin), abarauts, kaputs, malmutz-mamutz, taputz, trukutz.

TSA-TZA: – Dotsa, damotsa, dinotsa.

– Dautsa, baneutsa, baleutsa, dirautsa.

– Bagintza, bazintza.

– Baneutsa, bazeuntsa.

– Etxaguntza, jantza, koltza, antza, kapatxa.

– E = A: arantza, trantza, untza, kurutza...

TSE-TZE: – Daroatse, dakartse.

– Badagitse, banengitse.

– Damotse, dinotse, dekotse.

– Dautse, baleutse, bageuntse, bazeuntse.

– Kurtze-kurutze, untze-ultze.

– A = E: – ditxe, fitxe, harritze... arrautze, dirutze, haruntze, laguntze...

– hitze, bitse, sitse, bortitze... putzø, hutse, gorputze...

– TXE: letxe-legetxe-lantxe, ontxe-oraintxe...

TZI-TXI: – Eutsi (hartuizu).

– Gitxi, txitxi, ebatzi, jadetsi-jaretxi-jaritxi, eretxi- eritxi, gorantzi, igurtzi, iruntzi, potxi, tripontzi, urgatzi.

TSO-TZO: – Daroatso, dakartso.

– Balegitso, banengitso.

– Dinotso, damotso.

– Eutso (hartuik), dautso, baneutso, baleutso, bageuntso, bazeuntso.

– Artxo, txo, txotxo, moltso, zantzo.

TSU-TZU: – Jatzu... daroatzu, dakartzu... doatzu, noatzu... banintzatzu, balitzatzu, bagintzatzu... banekartzu, banindoatzu...

– Dabiltzu, nabiltzu, banenbiltzu, bebiltzu... badagitzu, begitzu, banengitzu... daikitzu, neikitzu, geinkitzu...

– Dotzu, dinotzu, damotzu... natortzu, datortzu, baletortzu, dagotzu, balegotzu...

– Dautzu, baneutzu, baleutzu, bageuntzu.

– Dontsu, txatxu, papartsu, txu, txutxumutxu, ugelatxu, galtzu, gozatsu, trepetxu.

EA: – Babea, trabea, aldabea, alabea...

– Patxadea, boladea, iladea, ostikadea...

– Plagea, sagea...

– Algarea, ganbarea, ikarea, andaparea...

– Grebea, arrebea... segea, sedea... erea, aukerea, banderea, bezperea, pentsakerea, zabalerea...

– Lixibea, labatibea, gupidea, genozidea... jirea, sokatirea, aingirea...

– Kobea, lobeia, aprobea... modea, arrodea... drogea, frogea... hilgorea, denporea, polborea...

– Udea, dudea, mudea, mugea... ardurea, etxurea, kulturea, hazkurea, freskurea...

Eta holan A bokalez amaitzen diren berba guztietan. Zerrenda guztiak emoteak ez dauka zentzunik, denek joko berbera egiten dabe-ta. Adibide banaka batzuk bakarrik jarriko dodaz, hiztegi errimatuan datozen ordenan, arlo amaibako honen idea orokor bat eukitzeko.

– Saldea, sorbaldea... landea, bonbea... kargea, berbea...
prakea, profetea... faltea, bueltea... markea, patriarkea...
hankea, puntea... gatazkea, protestea... panoramea, sistemea...
penea, dotrinea... kanpainea, azainea... alarmea, tabernea...
astrapalea, nobelea... gitarrea, gerrea... terrazea, enpresea...
saltsea, lotsea... martxea, fitxea... dantzea, baldintzea...
plantxea, urtxintxea...

IA: EA-ko guztiak IA sistemara egokituak: babia, ikaria, saldia, markia, alarmia, gitarria, lotsia, baldintzia, plantxia... etab.

IE: EA-ko guztiak IE sistemara egokituak: babie, ikarie, saldie, markie, alarmie, gitarrie, lotsie, baldintzie, plantxie... etab.

Bizkaierazko deklinabideak errima hauetan aukera zabala emoten dau, baina kontuz sistemak nahastu barik. A eta E bokalez amaituak konbinatzea zuzen legoke:

A: ganbara, alaba, aukera, genozida, landa, zapata, marka, sistema, nobela, terraza, saltsa, baldintza...

E: pare, mirabe, bere, adiskide, mende, ate, merke, eme, bele, oinaze, saltze, bardintze...

Hauek artikulu mugatzaileagaz ederto bat egiten dabe: *ganbarea-parea, alabea-mirabea, aukerea-berea, genozidea-adiskidea, landea-mendea, zapatea-atea, markea-merkea, sistemea-emea, nobelea-belea, terrazea-oinazea, saltsea-saltzea, baldintzea-bardintzea*. Bardin beste sistema bietan: *ganbaria-paria, alabia-mirabia, aukeria-beria...* edo *ganbarie-parie, alabie-mirabie, aukerie-berie...*

Egin ez daitekeena da I bokalez amaituak hauekin nahastu, sistema batek edo bestek emoten dituen abantailez baliaturik.

Esaterako, EA sisteman *egie, lodie, eguzkie...* bada, IE sistemako *legie, kolorie, ikustie* oinekaz konbinatu: *egie-legie, lodie-kolorie, eguzkie-ikustie*. Hau sistemak nahastea da, holan inon ez baita ahozkatzen. EA sisteman *egie-legea, lodie-koloria, eguzkie-ikustea* litzateke. IE sisteman *egijje-legie, lodijje-kolorie, eguzkijje-ikustie*. Edo gauza bera bizkaiera batua eta IA sistema nahastuz: *egia-legia, lodia-koloria, eguzkia-ikustia*. Bizkaiera batuan *egia-legea, lodia-koloria, eguzkia-ikustea* litzateke eta IA sisteman *egijja-legia, lodijja-koloria, eguzkijja-ikustia*.

Arau hau erriman ez ezik berbakera guztian errespetatu behar da, lorrinik egin gura ez bada. Esaterako, hartu daiguzan IE sistemako *artie, markie, merkie, tartie* oinak eta bertso hau egiten dogu:

Neurri motzean egin
 bihar da artie
 handiak daukan fama
 hain baita merkie.
 — Atzo eingo nayoan
 urteko markie
 libria pagauta jan
 kiloko tartie.

Bertso gauzeztan hau zeozer litzateke azpi-euskalkien nahasterik ez baleuka. Hona sistema baxotxean zelan beharko leuken:

Bizkaiera Batua: Neurri motzean egin
 behar da artea
 handiak daukan famea
 hain baita merkea.
 Atzo egingo nayoan
 urteko markea
 librea pagatuta yan
 kiloko tartea.

| | |
|-------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EA sistema: | Neurri motzean in-ein behar da artea handiek dekon famea hain baita merkea. Atzo ingo nayoan urteko markea librea pageute yan kiloko tartea. |
| IE sistema: | Neurri motzien eiñ biher da artie handijjek dekon famie hain baita merkie. Atzo eiñgo naijjuan urteko markie librie pageute jan killoko tartie. |
| IA sistema: | Neurri motzian eiñ bihar da artia handijjak daukan famia hain baita merkia. Atzo eiñgo najuan urteko markia libria pagauta jan killoko tartia. |

Hemen ohar batzuk komeni dira. Sistema beraren barruan badagoz diferentziak. EA sisteman *in-ein*, IE sisteman *naijjuan-naijjoan-najuan*, *dekon-daukan* eta abar. Horrez gainera, berbak osorik esatea sistema guztietan onar daiteke, nahizta berbetan kontrakzinoak egin: *egin*, *pagatu*, *behar dogu-biher dogu-bihar dogu* (eta ez *behogu-bihogu-bihu-bihau-bihagu...*). Edo aditzaren forma batuak: *kantatuta* (eta ez *kantauta-kanteute-kantata-kanteta...*), *pentsatzen* (eta ez *pentsetan-pentsaketan-pentsaten...*), *daust-dauste* (eta ez *dost-dust-doste-dostie...*) *dabe* (eta ez *deue-deure-deurie...*) eta abar. Behar dena da, deklinabidean eta kontrakzinoetan batez be, sistemak ez nahastea. Eta sistema barruan be koherentzi apur

bat eroatea. Bertso berean *in-ein-egin*, *behar dozu-behozu*, *dekuz-daukaguz...* eta abar indistintoki erabiltzea lorrina litzateke. Hortik aurrera be egon daitekez dudazko kontuak, baina ez dot uste xehetasunetan sartzea merezi dauenik. Euskalkian eta azpi-euskalkietan sartzea oso direktoa eta koloretsua izan daiteke, lekuan lekura egokituz, baina kontrako efektua eragingo leuken lorrinik sortu barik.

IA diptongoz amaitutako berbetan, sistema bakotxak «I» bokalez amaitzen direnetan lez jokatuko dau:

BATUA: mafia, komedia, momia, urlia, fantasia, zientzia = mafia, komedia, momia, urlia, fantasia, zientzia, haria, begia, lodia, hasia, ontzia diren moduan.

EA: mafia, komedia... = mafie, komedie, momie, urlie, fantasie, zientzie. Bardin *harie*, *begie*, *lodie*, *hasie*, *ontzie*.

IA: mafia, komedia... = mafijja, komedijja, momijja, urlijja, fantasijja, zientzijja. Bardin *harijja*, *begijja*, *lodijja*, *hasijja*, *ontzijja*.

IE: mafia, komedia... = mafijje, komedijje, momijje, urlijje, fantasijje, zientzijje. Bardin *harijje*, *begijje*, *lodijje*, *hasijje*, *ontzijje*.

Hemen badagoz egin beharreko zehazpen batzuk, nahizta lan honi zuzen ez jagokozen. IA diptongoz amaitzen diren berbak A bokalez amaitzen direnak lakotzat jo daitekez eta holan izan ezkeru, artikulu mugatzailea azpi-euskalki bako txaren legean ezarri beharko litzakie. Holan *mafia*, *komedia*, *gazteria*... IE sisteman *mafijjie*, *komedijjie*, *gazterijjie*... litzatekez eta IA sisteman *mafijjia*, *komedijjia*, *gazterijjia*... IE sisteman leku batzutan holan egiten da, baina beste askotan ez. Bardin IA sisteman. EA sisteman ostera ez dot uste joko hori normala denik. Ez naz gogoratzen *mafiea*, *komediea*, *gazteriea* eta holakorik inon entzun dodanik.

Bestalde, leku batzutan, nahizta mugagabeen *mafijje*, *glorijje*, *gazterijje*... esan, artikulu mugatzailea gehitzean, ez dabe jokia jarraitzen. *Mafijje handijje dabil hor*, baina *mafij-*

jek galdu gaitu. Gazterijje ederra dator, baina gazterijjek ez daki zer egin, eta holan. Horrez ganera zenbait berbatan ezein sistemak ez dau egingo artikulu mugatzailearen efektu hori. Oso leku bakanetan esango da (esaten bada) zientzijjie, esperientzijjie, herentzijjie eta antzekorik. Salbuespenak bere legeak eukiko ditu noski eta bat NTZIA atzizkia izan daiteke. Zehazpen hauetan baleiteke baiezpen batzuk dudazkoak izatea, baita neurri baten erratuta egotea be. Inoz ezin da esan hau ez da inon esaten, euskalki eta azpi-euskalkien sarea ezusteen labirintoa da-ta. Halan be, oro har, zehazpen hauek azaldu dodazen moduan direla uste dot.

EA: – TEA-TUTEA: olgetea, betetea, koloketea... (olgatzea, betetzea...). Apurtutea, lagundutea, ostutea... (apurtzea...)

IA: – Urlia, luperia, jakitura.

OA: – Eroan aditza: daroa, naroa, beroa, baneroa, baleroa...
– Langoa, lakoa, -tekoa, halakoa.

UA: – Daa, baneua, baleua.

– IA sisteman: - OA = UA: berua, gogua, astua, lelua...

– Darua, narua, banua, badua...

– Potxua.

EE: – Dautsee, leukee, daikee, leikee, zeinkee, lekarkee, leroakee...

IE: – Zarie... dakie, daukie... daustie, baleustie... jakie... dai-
tekie, naitekie... neintekie, leitekiet... nekarkie, leroakie...
nengokie, letorkie... leukie, zeunkie... leikie, zeinkie...
nintzakie, litzakie, hintzakie... badagie... banengie,
bahengie, balegie...

– TIE-TUTIE: olgetie, betetie, jakitie, emotie... (olgatzea, jakitea...). Apurtutie, ostutie, lagundutie... (apurtzea...)

- OE:** – Daroe, naroe, beroe... dinoe... dautsoe, bazeuntsoe, baleutsoe... begioe, badagioe, bazengioe... zeinkioe, leikioe... zeunskioe, leuskioe... daragoioe...
- UE:** – Dautzue, dauskuzue, daroazue, dinozue... jatzue, baneutzue, baleutzue... ZUE-TZUE amaidun guztiak... tirozue.
– IE sisteman: darue, narue, dinue, banue, badue...
- AI:** – Sai, ebai, garbai, amai, sabai, nasai, elai, zemai, abai, askai.
- EI:** – Bei (begi edo bedi), lei, balei (balegi edo baledi), banei, banindei.
– Ei, lei, larrei, edei, eskei-esei.
- OI:** – Lohi, erroi, eskoi, morroi, emoi, tximinoi.
– ZIÑOI-SIÑOI: salbaziñoi, okasiñoi, bedeinkaziñoi...
- UI:** – Ijui, kui, ujui.
- AO:** – Nao, dao.
– Harao, honao, ederrao...
– Papao, umao, abao, alarao.
- IO:** – Nintzakio, litzakio... badagio... ninoakio, leroakio, nekarkio...
– Banengio, bazengio, balegio... naitekio, daitekio...
– Daikio... neikio, heinkio, leikio, geinkio, zeinkio... nenbilkio, lebilkio...
– Nentorkio, letorkio... nengokio, hengokio, legokio... neuskio, heunskio, leuskio, geunskio, zeunskio.
– GAITIO: nigaitio, zugaitio, horregaitio.
– GANDIO, KANDIO: nigandio, inogandio... zuekandio, besteakandio...
– Arerio, artio, izio, kaisio-xio, oraindio-ondio, orio, tertzio, txilio, irabio, kirikio, erlabio, ugarasio-ugasio- ugelasio-ugaraio-ugarario, arrabio, bizio, boldrio.

EIO: – Leio, baneio, baleio, beio.

OIO: – Daragoio, baneragoio, baleragoio.

AU: – Enparau, garau, koitau, kristinau, parau, tenplau, brau, jau-jau, txau-txau, umau, abau, alarau, kopau, lau, zamau.

– Kantau, olgau, parau, gastau, kontau, somau, aparau, mentau, inkeu...

– Harau, honau, ederrau...

EU: – Baneu, baleu, baheu.

– ADU = EU: kanteu, pareu, olgeu, bendeu, bengeu, someu, apareu, menteu, inkeu...

– Koiteu, kristineu, tenpleu, leu.

IU: – Koiu.

UA eta UE sailetan EA, IA, IE sailetan lako oharrak egin daitekez.

OA = UE egiten dauen sisteman ondo egongo da *bero, lepo, asto...* tik datozen *berue, lepue, astue...* *buru, leku, gastu...* tik datozen *burue, lekue, gastue* oinekaz nahastea. Bardin IA sisteman *berua-burua, lepua-lekua, astua-gastua*. Baina sail haietan esandako koherentzian eta lorrinik egin barik. Beraz, IE sisteman, halan egiten den lekuan, errima ona litzateke *burue-darue-zorue-zerue*. Edo IA sisteman *amua-sanua-banua-damua*. EA sistemak ez dau ahalbide hau onartzen: *burue-darua-zorua-zerue* edo *amue-sanoa-banoa-damue*. Ezta bizkaiera batuak be: *burua-darua-zorua-zerua* edo *amua-sanoa-banoa-damua*.

Azkenik, ohar bat bizkaierazko erakusleez. Singularrean *hau-honek, hori-horrek* eta *ha-hak* (edo *harek*) beste euskalkietan lez bereizten dira: *hau etorri da-honek esan dau, hori etorri da-horrek esan dau, ha etorri da-hak esan dau*. Baina pluralean nahiko egitura herbalak daukaguz, NORK plurala eta NOR plurala NORK singularraren bardin egiten baitoguz.

Honek esan dau - honek esan dabe - honek etorri dira.
Horrek esan dau - horrek esan dabe - horrek etorri dira.
Harek esan dau - harek esan dabe - harek etorri dira.

Beste euskalkietan ere NORK plurala eta NOR plurala bardinak dira:




Hauek esan dute - hauek etorri dira.
Horiek esan dute - horiek etorri dira.
Haiek esan dute - haiek etorri dira.

Baina NORK singularra eta NOR plurala ez dira bat, bizkaieraz lez.

Honek esan du - hauek etorri dira.
Horrek esan du - horiek etorri dira.
Hark esan du - haiek etorri dira.

Bizkaiera idatzian *honek* eta *honeik-honeek* bereiztu izan dira. Bardin *horrek* eta *horreik-horreek* edo *harek* eta *hareik-hareek*. Berbakeran ez dodaz diferentzi hauek somatu. Beharbada EA sisteman entzuten den *honik-horrik* izan daiteke *honeik-horreik*-en kontrakzioa: *honik etxakiek ezer. Horrik eztotzue geuzonik ingo.* Hirugarren pertsonan ostera, EA sistemearen eremu batzutan -Txorierri zati bat, Uribe Kosta...- *haik-haiek* normalak dira. *Hauek-horiek* ostera ez dot uste bizkaierazko ezein eremutan entzungo denik, bizkaiera-gipuzkeren muga sortzen den euskalki mixtoan ez bada.

Hauek guztiak holan direla, bizkaierazko erakuslea beste euskalkien eredura egokitzeari zuzenago deritxot, *honeik-honeek*, *horreik-horreek*... forma galduei eusten ahalegintzeari baino, eta lan honetan erizpide horri makurtu najako, euskera idatzian gabizelako. Horrek ez dau esan gura berbakeran eta bertsoetan gure bizkaierazko erakusle ohizkoa erabiltzea txarto legokeenik, esandakako akatsak daukazan arren.



BIZKAIERAZ EGITEA ZER LITZATEKEEN

Deklinabidea, aditza, hiztegia eta hiztegi errimatua ikusirik, zer litzateke bizkaieraz egitearen eduki nagusia? Nik neuk, zorroztasun larregian sartu barik, hiru osagarri nagusi bereiziko neukez:

1) ADITZA.

Bizkaierearen ezaugarri nagusia aditzak markatzen dau: *dodaz-ditut, naiten-nadin, neban-neuen-nendun... eban-zeban-zeuen... gara-gare-gera...* Forma hauetan eta beste oso erabili batzutan, aldaera bat baino gehiago agiri dira bizkaierearen esparruan. Gehienetan, ostera, batez be plurala edo nori datiboa daroenetan, batasun gehiago dago: *neutzun-neutzuzen, neuskio-neuskioz, da(g)iodan, da(g)igun, genduzen, dinozen... eta abar*. Bizkaieraz egitearen ardatz nagusia, beraz, bizkaierazko aditza erabiltzea izango da.

2) BERBAK BIZKAIERAZKO FORMAN.

Berba asko eta asko dago, bizkaieraz bere forma edo aldaera ezbardina daukana: *urten, gitxi, hatx, bakotx, eritxi, etaratarata, be-bere, bage-barik, franku, zino-sino, azo-arazo, bardin, untze, denpora, lora, edei-edegi, ebai-ebagi* eta abar. Bizkaieraz egitearen bigarren ezaugarria holako berbetan bizkaierazko formak erabiltzea litzateke.

3) BIZKAIERA BARRUKO BERBAK.

Azkenik, bizkaierak, beste euskalki guztiek lez, berba asko daukaz bere-bereak, edo gehienbat bizkaieran ezagutzen direnak: *altzo, berba, gura, aldats, ostean-ostantzean, oster, garaun, sakatu, enpaidu-enparau, gomuta, ostendu, gogaitu, horma, hats-antz, jausi, domeka, martitzen, beilegi, sama, patari, mamala, neba, apatx* eta abar. Goragoko hiztegi guztia eta hor ez dagozen beste hainbat. Bizkaieraz diharduenari berba hauek ugari entzun beharko jakoz.

EUSKARA BATUTIK BIZKAIERARA ZER

1) DEKLINABIDEA.

Deklinabidean ikusi dogu bizkaieran badagozela azpi-euskalkiak eta bizkaiera batua. Honen deklinabidea euskara batuaren bardina da, a bokalez amaitzen diren berbetan izan ezik: *zapata-zapatea, fama-famea, loka-lokea, denpora-denporea, uda-udea...* Honetan ez dago adarrik zetan apurtu. Deklinabide osoa euskara batuarena aplikatzea ondo ikusiko neuke gaur egun. Baina beti be koherentzia minimo batean. Èreduak noznahi indistintoki nahastea lorrina litzateke.


2) EUSKAL HIZTEGI GUZTIA.

Nahizta bizkaieraz jardun, euskal hitz guztiak denonak dira, bai batukoak, bai euskalki guztietakoak. Arestian aitatu-tako bizkaierazko edo bizkaiera formazko berbez ganera, euskaraz dagozen berba guztiak gureak dira eta gureak euskaldun guztienak dira. Berba asko euskalki guztien komunak dira: *lur, ur, jan, egon, gauza, kendu, bat* eta abar. Beste asko dagoz, bizkaieraren barruan garatu edo zabaldu ez direnak: *maiz, aizu, otoi, noski, aisa, bederen, agian, funtsean, bezala, anitz, at...* hitz, *haur, oroitu, jalgi, etsai, mintzo, ero, garai, zintzur* eta abar eta abar. Argi dago berba horiek guztiak lasai erabil daikeguzala, bai bizkaieran, bai beste edozein euskalkitan.

PLAZAN ZEIN BIZKAIERA

Bizkaieria izanik euskalkirik mintzatuena eta azpi-euskalkirik gehien daukana, zein planotan kantatu behar dogu plazan? Lan honetan bizkaiera batua eta hiru azpi-bizkaiera kontuan hartu doguz, beheragoko diferentziak edo azpi-euskalkien azpiragoko ezaugarriak (ibarretik ibarrerakoak, herritik herrirakoak...) albora utzirik. Plaza batera goazenean, oso leku jakinera goaz. Hango entzuleen gunea holan mailaka geinke, estetik zabalerantz: auzoa, herria, ibarra, eskualdea, Bizkaia (kasu honetan bizkaierearen lurraldea, Bizkaia baino gehiago hartzen dauena). Hizkuntzeari jagokonez, plano bi kontuan edukitzea nahikoa da: azpi-euskalkia eta bizkaiera batua.

Azaldu doguzen hiru azpi-euskalkietariko bakotzak eskualde bat baino gehiago hartzen dau eta bakotzak bere azpian bereiztasun asko edukiko dauz, ibarren, herrien eta auzoen arabera. Zein planotan jarriko gara halako toki jakin batean? Erantzuna ez da zaila. Bizkaierearen eremuan jarrera normala, edozein plazatan hartzekoa, bizkaiera batua izan behar dauela uste dot. Eta honen barrutik azpi-euskalkira nahiz beste edozein planotara jaitsi gaitkez. Zehaztu daigun apur bat gehiago.



BIZKAIERA BATUA

Bizkaiera batuak hiru ezaugarri nagusi edukiko leukez.

1) ADITZA. Lan honetan emon doguzen aditz formak bizkaiera guztian ibiltzeko seguruak dira. Hortik beherako xehetasunetan sartzea arriskutsua da.

2) DEKLINABIDEA. Hemen be jarrerarik seguruena bizkaiera batuko deklinabidea erabiltzea da, euskara batuaren ia bardina delako. Eta, gorago esan dogun lez, ezbardintasun horietan be euskara batuaren eredu aplikatzea ez legoke txarto. Horrez ganera, kontuan eduki behar da bertsogintzan IA sistema oso ezaguna eta normala izan dela, ez bizkaieran bakarrik, ia euskalki guztietan baino. *Atia, partia, artian, bidian...* bertsolaritzan ia EA eredu baino erabiliago izan da. Beraz, bizkaiera batuko *zapatea, hankea, euskerea* eta abar gogor samar egiten jakozanak *zapatia, hankiā, euskeria* eta abar erabil daikez, orduan dena IA ereduan koherente eroaten ahaleginduz.

3) LOKALISMOAKAZ KONTUZ. Bizkaiera batuan dabilenak azpi-euskalkien eta beheragoko planoen ezaugarriakaz kontuz ibili behar dau, lokalismoetan ez jausteko, ez lokalismoa txarra delako, bere lekutik kanpora ezezaguna edo inoportunoa izan daitekeelako baino. Bakotxak geure herriko eta geure azpi-euskalkiko bereiztasunak ezagutzen doguz, baina batzuk horkoxeak bakarrik izan daitekez eta esparru horretatik

kanpora gabizenean, azpi- euskalkikoa zer den eta euskalki osokoa zer izan daitekeen antz bat edukitzea komeni da. Norberak aurea hartu ezik, esperientziak irakasten dau hori, baina esperientziak gehienez belarrondoka irakasten dau. Didaktika efikaza, minbera ez balitz.

AZPI-EUSKALKIA

Bizkaiera batuan kantatzen jardun arren, azpi-euskalkira trankil jaitsi daiteke edozein unetan. Izan daiteke idea bat adierazteko azpi-euskalkiak ahalbide hobea emotea. Esaterako, azken puntua *jakie* oinaz bajatortzu, (adibidez, *entzule finei sufriduazo ein behar jakie*), badakizu IE sisteman errez moldatu zeinkela, EA sisteman gatxago izango dozu eta IA sisteman eta bizkaiera batuan lan txarra daukazu.

Edo beste barik izan daiteke efektu edo kolore ezbardin baten bila jaistea. Orduan, jakina, efektua lortu egin behar da, bestela hutsa nabarmenago geratzen baita. Zerbaiten bila joan eta esku hutsik etortzea edo lorrina besterik ez ekartzea akats dobletzat jo behar da.

Saio osoa azpi-euskalkian egin al daiteke? Bai horixe, ondo ezagutzen badozu eta entzuleek be azpi-euskalki hori ezagutzen badabe. Edozein plano da ona, norberak eta entzuleak bertan ibiltzen jakin ezkeru. Gertatzen dena, plano asko eta ezbardinak egonik, denak menperatzea zaila dela. Horretarako da bizkaiera batuaren plano, oso asumiturik dagoena bestalde.

KOHERENTZIAREN UNITATE MINIMOA

Lan honetan zehar sarritan ekin dautsagu hautatutako euskalki ereduaren koherentziari. Alegia, bizkaiera batua eta aita-tu beste hiru azpi-euskalkiak edozelan nahastea, komenentzi puntualen arabera, gusto txarreko lorrina litzatekeela. Eta are gehiago bizkaierea beste euskalkiakaz edo euskara batuagaz nahastea. Baina bizkaierearen barruan, batutik beste azpi-euskalkietara saltatzea egokitzat jo dogu, efektu edo kolore ezbardinen onerako. Ez ostera edozelan.

Arau errez eta praktiko lez, koherentziaren unitate minimotzat bertsoa edo ahapaldia hartuko neuke. Euskalki baten barruan egiten doguzen inkurtsioek gitxienez bertso beraren barruko koherentzia segurtu behar dabe. Gehienez biren edo gehiagoren arteko saioa izaten delarik, norbere bertsoetik bertsoa beste baten edo batzuren bertsoa dago bitartean. Aurrekoa bizkaiera batuan kantatu badot, hurrengoa aparte geratzen da eta azpi-euskalki batean lasai kanta daiket, bertso hori osorik eredu horretan osotzekotan. Areago oraindik, bakarrean kantatzen dodala be, bertso batetik bestera eredu aldatzea ez neuke txarto ikusiko, efektu positiboa lortzekotan. Hortxe dago kakoa, aho bikoa. Normalean, eredu baten barruan bazabiz, eredu horretantxe jarraituko dozu, aldatzeko merezi dauen motiborik ikusten ez badozu. Aldatzean, zeozeren bila zoazela adierazten dozu, baina gero ezer ganorazko-

rik aurkitzen ez badozu, positiboa izan beharreko efektua bi bider negatibo gertatzen da.

Bertso baten barruko koherentziari eutsi ezker, hortik gora askatasun osoa emongo neuke, bizkaiera batutik azpi-euskalki ezbardinetara salto aberasgarriak egiteko. Horretarako, jakina, azpi-euskalkiak apur bat ezagutu egin behar dira. Berea besterik ezagutzen ez dauenak hoba dau bere esparrutik kanpora bizkaiera batua aplikatzea, hango entzuleentzat hau segurragoa baita, euren ez den azpi-euskalkia baino.

KONFIANTZARAKO OHARRAK

Gatxena ez da bizkaieraz egitea, bertsoan egitea baino. Azken batez norbere euskalkia aplikatzea besterik ez da. Euskalki honen barruan sor daitekezan mataza guztietan galdu beharrik ez dago. Bakotxak badauka bere azpi-euskalkia eta baita bizkaiera batuaren ezagutza bat be. Eskolatze guztia eta arteko bertsogintza guztia euskara batuan egin dauenari zalantzak etor daitekioz, terreno badaezpadakoan edo arrotzean sartu ete den. Horrelakorik balego, beihoaz argitasun konfiantzagarriok.

1) Bizkaiera batuak tradizino luzea eta indartsua dauka. Ez gabiz atzo goizeko kontuak esaten, gitxienez pare bat mendetik honakoak baino. Eskolan oso gitxi ibilitako herria be ohituta dago bizkaiera batu bat entzuten. Eta ohituta ezeze, zelanbaiteko hizkuntza osoa eta kultoa estimatu egiten dau. Bizkaiera batua gehien landu izan den eleizan, entzule analfabetoak be hizkuntza kultoa jaso dau eta horixe baloratu dau. Predikari batek, ona eta estimatua izango bazen, maila jaso horretan berba egin behar eban. Sermoiak herritarren berba-keran egiten ebazana sermoilari zabartzat eta ganorabakotzat joko eban.

Baina ez da eleiz kontua bakarrik izan. Handik kanpora be, bizkaiera batuaren zentzuna antxinakoa da. Zelan egiten eban gerraurreko edo baita joan zen mendeko gerra karlisten

inguruko mitinlari euskaldunek? Zelan mende honen hasierako aldizkari eta egunkarien gorakadea eragin eben kazetari eta idazleek? Ba, bizkaiera jasoan eta batu samarrean. Pentsa Mogeldarrak duela mende bikoak direla. Eta bertsoan bertan, joan zen mendearen erdialdeko Pantxillonon «Bizkaiko bazter baten» bertso sorta famatua tradizino horretan eginda dago. Bardin askoz lehenagokoak diren Aboitizen «Txanton Pipirri», «Peru Dubako» eta abar. Bardin koplaritzako tradizino hain zaharra. Hori guztia bizkaitarrek kantatua izan da modurik naturalenean. Anonimoetan ezezik, laster argitaratuko den **Bizkaiko bertso-gintza II Izendunak** liburu mardulean argi ikusiko da gure euskalkiak zein tradizino handia dakarren bertso-gintzan. Beraz, bizkaiera batuak, beste euskalki guztiek lez, gaur euskara batu hutsean eskolatzen diren ikasleek uste baino sustrai handiagoak daukaz herrian, batez be bertso-gintza arloan.

2) Bizkaiera batua ez ezik, azpi-bizkaierak be uste baino ezagunagoak dira gure euskalkiaren barruan. Lan honetan hiru azpi-euskalki kontuan hartu doguz: EA, IA, IE sistemak. Horietariko bakotxak lurralde zabala hartzen dau eta ez dira hizkera marjinalak. Nekez egongo da bizkaieradunik, sistema jakin batekoa izan arren, beste sistema bietako bizkaierarik entzun eta ezagutzen ez dauenik. Ez berak egiteko moduan, baina bai ondo ulertzeko moduan. Eta arrazoia sinplea da: euskalki beraren barruan gabiz. Horrek komuntasun handia emoten dau, aditzean batik bat. Eta ganera alkarren arteko harremona eta ezagutza dago. Arratiarrek Durangaldeko berbetea askotan entzun dabe, Gernikaldekoek Markinaldekoa oso ezagun dabe, Elorrikoek Aramaiokoa, Txorierrikoek Eibarkoa eta abar.

Beraz, bere azpi-euskalkian kantatu gura leukena bego ziur edonon ulertua izango dela euskalki horren barruan, beti be berbak osorik samar esaten eta laburdura eta fonetismo loka-lagoak (batez be *ji-jaua*, *ji-jjaua* eta *xi-xaua*) ekiditen ahale-

gintzen bada. Ganera alderdi batzutan azpi-euskalkiak abantaila handiak emongo dautsoz. IE sistemak, esaterako, bizkaieraren erdigunea hartzen dau lurraldez eta hiztunetan behar bada bera izango da ugariena. Bizkaieratik kanpora be oso ezaguna da. Gipuzkoan, esaterako, Azpeitia-Azkoitiatik Zumarraga alderaino eta Nafarroa Garaian ere hainbat eskualdetan. Iparraldean ez dut uste. Hain sistema hedatua izan arren, ez dau lortu bere eremutik harago zabaltzerik, ez bizkaieraren ez beste euskalkien tradizino batuan. Eta horra bertsogintzarako, bizkaieraz behintzat, berak emoten dauela ia abantailarik gehien, gure aditz asko baitatoz deklinabide horregaz bat: *dakie, daukie, daikie, leukie, leikie, jakie, geunskie, zaitie, daitekie, zagozie, zabizie, nintzakie, litzakie...* eta abar. EA sisteman I bokalez amaituak ondo datoz aditzokaz, baina ez A-E bokalez amaituak, EA egin behar baitabe: *prakea, atea...* IE sisteman barriz I bokalez amaituek IJJE edo IXE egin beharko leukie (*argijje, berezixe...*), baina oro har A-E bokalez amaituak askoz gehiago dira.

UE amaieradun aditzak be ez dira gitxi: *dozue, dakizue, daukazue* eta *-zue* denak; *dautzue, dinotzue, jatortzue* eta *-tzue* denak, *ditue, gaitue, dauskue, baleue...* eta abar. Hemen EA eta IE sistemak abantaila bardina edukiko leukie U bokalez amaituriko berbetan: *eskue, burue, mosue, altue...* Baina IE sistemako gehienek O bokalez amaituak be UE bihurtzen dabez: *auzue, berezkue, lepue, harrue...* IA sisteman abantaila guzti hauetaz baliatzerik ez dago, nahizta hemen be, aditzetik aparte, deklinabideko kointzidentzia batzuk badagoen: *eskuan-astuan, berua-burua, kontua-tontua... prakia-atia, arnasia-haizia...* Hots, A-E eta O-U bokalak, artikulua mugatzailea ezartzean, bardindu egiten dira. Baina amaiera hauek tan apenas dagoen aditzik.

Eta gitxien bizkaiera batuan aprobeitza daitekez azpi-euskalkien aitaturako abantailok. Baina honek, edozein batuk lez, beste abantaila handi batzuk daukaz, tradizino, ulermen, pres-

tigio eta abarren mailan. Ez dago bata-bestearen abantailak lehian ipini beharrik, bakotzak bere mailea eta bere alde onak baitaukaz. Gorago azaldutako egokitasun eta koherentzia minimo baten barruan, zergaitik ez doguz abantaila guztiak aprobetxatuko? Bizkaieraz egitea erreza da. Bertsotan egitea da gatxa.

ITURRIAK

Lan honetako hiztegiaren iturri nagusiak hauexek izan dira:

Bizkaiko bertsogintza I Izengabeak. Xabier Amuriza

Bizkaiko bertsogintza II Izendunak. Xabier Amuriza. (Hau oraindik argitaratzeko).

Diccionario vasco-español-francés. R. M. Azkue.

Euskalerraren Yakintza I, II, III eta IV. R. M. Azkue.

Manual del vascófilo. Pablo Zamarripa.

Baita gauzaren bat edo beste bizkaieraren inguruan batzen den talde baten (Adolfo Arejita, Juan Luis Goikoetxea...) apunteetatik.


* Liburu honetako argazkiak, Areatzan, Muxikan joandako uztailaren 3 eta 4an gai honi buruz egindako ikastaroan ataratakoak dira.

F U N D A C I O N



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

F U N D A Z I O A



V-753

Bentsootan - Xabier Amurizo